

hh
hik hasi

172



ELKARRIZKETA:
FRANCESCO TONUCCI •

**GAIA: EKIALDEKO
KONTENPLAZIOA
MENDEBALDEKO
ESKOLETAN •**

PARTAIDETZA (II) •

ZINEMA ESKOLAN •

**IRAKURKETA
DIALOGIKOAK •**

**GALDEIDAZUE:
ALFREDO HOYUELOS •**

TRENAREN MUSEOA •

**AIORA ZULAIKA
“PIRRITX”**

8 URTETIK
AURRERA

**TXOMINTXO ETA PERUTXOREN
ABENTURAK**

**TXOMIN ETA PERU MAGDALENA
IOSU MITXELENA**



10 URTETIK
AURRERA

**MEMORIAREN
ZUHAITZA**

**PELLO AÑORGA
JOKIN MITXELENA**



**GAIZKA AROSTEGI
EIDER EIBAR**

URREZKO ORRAZIA



12 URTETIK
AURRERA

SASIAK MENDIA JAN

**JOAN MARI IRIGOIEN
ANTTON OLARIAGA**



10 URTETIK
AURRERA

**URRUNEKO MOTORRAK
MILA ZALDI**

**JOAN MARI IRIGOIEN
ANTTON OLARIAGA**



**XAGUXAR BILDUMA ERABERRITUA,
INOIZ BAINO KOLORETSUAGO,
BETI BEZAIN DIBERTIGARRI**

elkar

www.elkarargitaletxea.com

aurkibidea



8
gaia

EKIALDEKO MEDITAZIO-TRESNAK

Azken urteotan, meditazioa egiten hasi dira zenbait eskolatan. Meditazio-teknika mendez mende erabili dute Ekialdean, eta, orain, Mendebaldean hasi dira probatzen, ikasteko prozesuan sor daitezkeen oztopoak gainditzeko asmoz.



16
elkarrizketa

FRANCESCO TONUCCI

Frato goitizenaren erabiliz, bere kezkek eta gogoetak zabaltzen ditu umorearen bidez. Haurren Hiria izeneko egitasmoarengatik da ezagun batez ere Tonucci. Hirien antolakuntza haurren behar, eskubide eta ezaugarrietara egokitzea proposatzen du 1991n sorturiko proiektu horretan.

5 editoriala

6 hizpide izan da

8 hizpide izango da

10 gaia

EKIALDEKO KONTENPLAZIO-TEKNIKAK

Mendebaldeko eskolatan

18 elkarrizketa

FRANCESCO TONUCCI “FRATO” psikopedagogo

25 PARTAIDETZA (II)

32 esperientziak

TINKO. Euskara zine aretoetara.

34 esperientziak

Irakurketa dialogikoak irakasleen hobekuntzan.

35 galdeidazue

Nola joka dezakegu negarrez ari den haur baten aurrean? Alfredo Hoyuelos

40 nora joango gara?

Burdinbidearen Euskal Museoa

42 Atzeko atetik

Aiora Zulaika “PIRRITX”

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 ; www.hikhasi.com; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690. Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Ainhoa Azpiroz, Ainara Gorostizu eta Arantxa Urbe. Erredakzio batzordea: Nerea Agirre, Izarne Garmendia, Miren Guilló, Mari Karmen Irastorza, Pello Jauregi, Iñigo Larrañaga, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Maite Saenz, Xabier Sarasua. Aholkulariak: Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Felix Basurko, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Luis Mari Elizalde, Lore Erriondo, Guillermo Etxeberria, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Karmele Perez Urraza, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Fito Rodriguez eta Matilde Sainz. Administrazioa: Arantxa Goiburua. Diseinua: Graf!k. Maketazioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZA S.A.L. Azaleko irudia: Hik Hasi. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia (2012-10-10). Kopurua: 3.600 ale.

hik hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

www.hikhasi.com

EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

Euskal Herrian pentsatua eta sortua, etxekoentzako heziketa aldizkaria



Egin zaitez
harpidedun!

Argitaratu dugu 2.
Hazi Hezi aldizkaria.

Gustuko baduzu,
urtean argitaratuko
ditugun lau zenbakiak
20 euroren truke
izango dituzu etxean
943 371 408

www.hikhasi.com

* hik hasi, Berria eta Irria-ren harpidedunek beherapena izango dute.

hik hasi 18 ikasturte daramatza
euskal hezkuntza indartzen
eta laguntza eskaintzen



Informa zaitez eta parte hartu
hik hasi proiektuan harpidetuz
www.hikhasi.com



GAIA: GURAIZEEN LEZIOA • ELKARRIZKETA: INAKI MURUA • PARTAIDETZA (I)
• ETXEAN BIRZIKLATU ETA IKASTETXEAN BILDU • NAIROBITARRA
• GALDEIDAZUE: IMANOL IBERECI • BIBAT MUSEOA • JOXEAN AGIRRE

editoriala

azaroa

Hezkuntza lehenesteko garaia



Jaurlearitza berriak bere lehentasunak markatu beharko ditu; hezkuntza lehentasun horien artean egongo al da? Irakaskuntzari daukan balioa eman behar zaio krisi egoera honetan.

Aldaketa eskatu dute bozetara deituak zeuden euskal herritarrek, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleek. Datozen egunetan bistaratu da aldaketa hori, Iñigo Urkulluk lehendakari-tza hartzean.

Gobernuak lehentasunak markatu beharko ditu Ajuria Enean sartzen den lehen egunetik. Lehentasun horien artean egongo al da hezkuntza? Aldarrikapen hori egiteko unea da hezkuntzako eragileon partetik: Gobernu berriak hezkuntzari eman diezaiola daukan garrantzia, krisi garai hauetan benetan garrantzitsuak diren balioak lehenetsi ditzala.

Hezkuntzari garrantzia ematea herri hau osatzen duten herritarrei garrantzia ematea da. Oraina eta etorkizuna eraikitzen ari direnei eta eraikiko dutenei garrantzia ematea. Hezkuntzari balioa emateak hezkuntzari baliabideak ematea esan nahi du, eskolei eta familiei baliabideak ematea.

Hezkuntza sistemak sendotasuna behar du, inoiz baino gehiago orain krisi egoera honetan. Batetik, krisi ekonomikoaren ondorioz, moztu behar diren

beharraz, hezkuntzan murrizketak egiteko tentazioa izan dezakeelako batek —Espainiako Gobernuak bezala—, baina nagusiki gizarte krisi honetan hezitzaileek rol ikaragarri garrantzitsua dutelako.

Hezkuntza sistemari sendotasuna emateko interes alderdikoekin erabiltzea saihestu behar da. Horren adibide argia daukagu, berriro ere, Espainiako Estatuan. Gobernu alderdiz aldatzen den bakoitzean—hala izan berri da Raxoiren Gobernuarekin, eta Zapaterorenak ere gauza bera egin zuen— alderdiaren interesen arabera “erreforma” egin dio hezkuntza sistemari, gizartearen premia eta interesei begira behar diren alderdiaren interesei behar jarritz hezkuntza. Oraingo honetan, argiki, ikasleak “espainiaritzeko” helburua duen erreforma ezarri nahi du Juan Ignacio Wert hezkuntza ministroak. Horretarako, Nafarroari bezala EAERI konpetentziak murriztuko dizkie, batetik, eta gurasoei ere erabakimena murriztuko die, bestetik. Murrizketak, alabaina, ez dira konpetentzietara eta erabakimenera mugatzen, jakina denez,

baliabideen murrizketa nabarmena ezarri du Wertek.

Espainiatik, beraz, bide estua —espainiarzalea eta murriztailea— markatuko dio Jaurlearitzako Hezkuntza Sail berriari. EAERIko Gobernuak gizartearen nahi eta beharrei erantzun nahi badie, baina, bere bideorria beharko du. Bozetara deituak zeuden euskal herritarrek argiki esan diote zer norabide nahi duten jarraitu. Bi heren kolore abertzalea duen parlamentua honek, eskolaren bitartez, euskara jakin eta erabiltzeko oinarriak ezarri beharko lituzke; euskal curriculumak garatzeko bidean urratsak egin ditzake, herritarren kohesioa bermatuz —norbanakoen aniztasuna errespetatuz eta esku-bide mailako berdintasuna berretsiz—.

Inbertsioa pertsonala eta soziala da, baina baita ekonomikoa ere. Ikasle bakoitzarengan inbertitzen den euro batak ia lauko errentabilitatea ematen baitu (iaz Kooperazio eta Garapenerako Europako Erakundeak egin zuen ikerketaren arabera). Baldin eta bide erdian eta ezinean gelditzen ez bada.

hizpide

Sexuaren arabera bereizten duten Nafarroako eskolak, itunik gabe

Neskak eta mutilak bereizi egiten dituzten ikastetxeek diruz ez laguntzea erabaki du Nafarroako Parlamentuak. Ezkerrak proposaturik, eta PSNren eta Bilduren babesarekin, bereizkeria egiten duten ikastetxeek Nafarroako Gobernuaren diru laguntako jasotzeko duten ituna kentzeko legea onartu zuten iragan urriaren 11n; UPNk eta PPK legearen kontrako bozka eman zuten. Lege berriaren arabera, sexu bakar bateko ikasleak soilik onartzen dituzten ikastetxeek, edo ikasleak sexuaren arabera bereizten dituztenek, ezin izango dute Nafarroako Gobernuarekin itunik izan, eta ondorioz, ez dute diru-laguntza jasoko. Haatik, legeak salbuespen bat onartzen du: jada ikastetxe horietan matrikulatuta dauden neska-mutilek eskolan jarraitzen duten bitartean, laguntza jaso ahal izango dute zentroek. Ikasle horiek irtetean, laguntza etengo zaio zentroari.

Unibertsitate tasen igoeragatik, ikasgai batengatik 800 euroraino ordaindu beharko dira NUPen

Nafarroako Gobernuak Espainiako Hezkuntza Ministerioaren irizpideak jarraitu eta nabarmen igo ditu unibertsitate tasak. NUP Nafarroako Unibertsitate Publikoaren kalkuluen arabera, 2012-2013ko ikasturtean matrikulatu diren ikasleen diru ekarpena %44 igo da, batez beste. NUPeko ikasleen errektoreorde Paloma Virsedak adierazi du ikasle edo familientzako zama bihurtuko badira, ezin dutela tasen igoera ontzat baloratu.

Ikasleek salatu dutenez aurtengo

martikulazio batzuek 5.000 euroak gainditu dituzte, eta era horretan, unibertsitatean sartzea eta bertan jarraitzea oztopatzen ari da Gobernuak. Garestitzea, bereziki, errepikatzaileek eta graduondokoetako ikasleek jasango dute. Graduaren prezioa %34 hazi da, batez beste. Masterren prezioak %52 hazi dira, eta berehala izan du eragina: matrikulatuaren kopurua %15 jaitsi baita ikasturte honetan.

EHUk, berriz, KPI baino ez die erantsi EHUren tasei.

Sexologiak hezitzaileei egin diezaiekeen ekarpena aztertu dute

Giza eskubideetan oinarrituriko hezkuntzari buruzko XI. mintegia egin dute Donostiako Filosofia eta Hezkuntza zientzian fakultatean, eta, bertan, sexologiak hezitzaileei egin diezaiekeen ekarpenez mintzatu ziren. Lehenik eta behin, Efigenio Amezua Madrilgo Alcalá de Henareseko unibertsitateko "Sexologia: hezkuntza eta sexu aholkularitza" masterreko zuzendaria mintzatu zen. Bere Sexuen Teoriari buruzko hainbat nozio azaldu ostean, sexu heziketari buruzko hainbat nozio eman zituen, hala nola, sexu hezitzaileen egite-



koa zein den azaldu zuen: "Askotan zer egin behar den eta zer ez den egin behar azaltzen da, ikuspegi moralista batetik, eta sexuheziketa prebentzioan eta osasunean soilik oinarrituz; hezitzaileak lana, ordea, ideiak ematea da".

Beste hainbat hizlari ere izan ziren, horien artean: SEXUNE sexologoaren elkartekoak; Basauriko sexu orientazio zentrokoak, EMAIZE sexologia zentrokoak eta Larraitx Arando sexologoa.

izan da



Milaka ikaslek eman diote ezezkoa Espainiak ezarri nahi duen erreformari

Aurreikuspenak gainditu zituen Ikasle Abertzaleek Espainiako Hezkuntza Ministerioaren erreformaren aurka, urriaren 11rako deitua zuten greba egunak: ikastetxe eta unibertsitateetako gela asko eta asko hustu zituzten, eta 16.000 pertsonak hartu zuten parte Hego Euskal Herrian egin ziren 30 manifestazioetan. Bigarren Hezkuntzako, Labinde Heziketako eta uniber-

tsitateko ikasleei egin zien grebarako deia IAK, eta ELA, LAB eta EILAS sindikatuen babesarekin jaso zuten mobilizazio egunak.

Jose Ignacio Wert ministroaren asmoetik haserrea adierazi zuten ikasleek; batetik, curriculumeko edukiak zentralizatuz eta inposatuz Euskal Herria ukatzea egotzi zioten Wert, eta hezkuntza sistemari buruzko erabakia

Euskal Herrian hartzeko ahalmena aldarrikatu zuten, eta euskal hezkuntza sistema propioa exijitu zuten.

Mariano Raxoiren gobernuak oinarritzko zerbitzu publikoak pribatizatzeke duen nahia salatzen zuten, eta hezkuntza ere “sistemaren mesedera manipulatzeke asmoa” deitoratu zuten.

Lau hiriburuetan izan ziren manifestazioak, eta Bilbokoa izan zen mobilizaziorik jendetsuena, 5.000 ikasle inguru batu baitziren ‘Erreforme! ez! Hezkuntza herritik herriarentzat’ leloz zeraman pankartaren atzean.

Herrizaingo Sailak 200 gazte inguru identifikatu zituen, eta 93 pertsona inputatu zituen desordena publikoak eta eraikin publiko baten okupazioa egotzita. Iruñean ehundik gora gazte identifikatu zituen Espainiako Poliziak. IAK Herrizaingo Sailaren eta Espainiako poliziaren jarrera oldarkorra eta bortitza salatzen zuten.

IAK deituriko grebaren lekukoa hartu zuten Espainiako hainbat herritan, Galizian eta Herrialde Katalanetako ikasle sindikatuek, eta milaka ikasle atera ziren kalera murrizketen aurka.

Ikasleak “espainiar” nahi dituela onartu du Wertek

Espainiako Gobernuak prestatzen ari den hezkuntza erreformaren bitartez ikasle katalanak “espainiar” nahi dituela aitortu du Jose Ignacio Wert Hezkuntza ministroak. Adierazpen horiek egin zituen Francesc Valls PSOEko parlamentari katalaniarak Gobernuaren kontrol saioan egin

zian galderari erantzunez: “Gure helburua Kataluniako ikasleak espainiar sentitu daitezen, harro”. Gobernuak bi identitateen arteko oreka lortu nahi duela adierazi zuen, “elkar aberastu eta indartu dezaten”. Bere arrazoiari eusteko, adierazi zuen Kataluniako

hezkuntza sisteman Historia irakasgaia bai, baina Espainiako historia ez dela irakatsi azken urteetan Katalunian. “Espainiaratasunaren sentimendu bateratuan eta aniztasunean aberatsa da Espainia” adierazi zuen. Wertek Raxoiren babes osoa jaso zuen.

Katalunian eta Euskal Herrian, aldez, kontrako iritzia oldea jaso zuten Wertek adierazpenek.

hizpide



“ESPAZIOen antolaketa haurren AUTONOMIA garatzeko” jardunaldiak, hik hasi-ren eskutik

Espazioaren diseinu eta antolaketak haurren garapen eta hezkuntza prozesuan ikaragarri lagundu edo oztopatu dezake. Hausnarketa horretatik abiatu, hezitzaileak espazioaren antolaketaz eta beraiek egin ditzaketen esku hartzeaz hausnartzera gonbidatu nahi ditu hik hasi-k Haur Hezkuntzako hezitzaileei zuzenduriko jardunaldietan. Azaroaren 9an eta 10ean egingo dira jardunaldiak, goizez. Lehen saioa Durangon izango da, eta Donostian errepikatuko dugu jardunaldia.

Lehen bi saioetan espazioaren garrantziaz jardungo dira. Lehenik, Jose Ramon Mauduit prebentzioan aditua den psikologoak ‘Espazio desberdinak: kokagunea’ izenburuko hitzaldia emango du, eta jarraian, Kataluniako Pikler Hengstrberg taldeko Rosa Vidiella pedagogoa honako hitzaldi hau eskainiko du: “Espazioen garrantzia garapenean. Espazioak eta jolas-guneak haur hezkuntzan”. Ondoren, Euskal Herriko bi esperientzia ezagutuko ditugu, Baztango haur eskolakoa, eta Oiartzungoa. Bietan hezitzaileek espazioaren antolaketa eta diseinuan parte hartu dute arkitekto-taldearekin batera, eta beraiek egindako ibilbidea azalduko dute.

Izen-emate epea azaroaren 2a arte zabalik egongo da, www.hikhasi.com webgunean edo 943371408 zenbakian.

Bizikidetzarako Arkitektura Topaketak

Arkitekturatik gizarte bidezkoago eta askeago bat lortzeko egin daitezkeen ekarpenak, elkarbizitzarako eremuen plangintza eta eraikuntzan herri-tarren eta arkitektuen arteko elkarlana garatzeko moduak eta arteak horrelako prozesuetan izan dezakeen zereginaz aztertuko dituzte BAT Bizikidetzarako Arkitektura Topaketetan, Bilbon, azaroaren 3tik 9ra bitartean.

Zaramari hiri ekologia elkarteak antolatutako jardunaldietan lantegi jarriko dituzte martxan; horietako batean, *Hiria eta umeak* izenekoan, arkitektura zer den jakiteko oinarrizko ideiak erakutsiko dizkiete haurrei. Lantegia Miribilla ikastetxeko umeekin egiten ari dira urriaz geroztik.

Informazioa: bat.zaramari.com

Jardunaldi pedagogikoak, Gasteizen

Gasteizko Udal Hezkuntza Zerbitzuek IV. jardunaldi pedagogikoak egingo dituzte azaroaren 23an eta 24an, Familia, eskola eta nortasunaren garapena hartzaroz izenburupean. Besteak beste, ondoko aditu hauek izango dira hizlari: Vicenç Arnaiz, Mari Jose Intxausti, Rafael Cristobal, Alberto Lasa eta Peio Añorga.

Informazioa:

www.vitoria-gasteiz.org 945161389

izango da

Hizkerak hizpide 'Ahoa bete hots' jardunaldietan

Euskalkiak, euskara batua eta erregistroa ahozko kultur sorkuntzan aztertuko dituzte *Ahoa bete hots* jardunaldietan, Villabonan (Gipuzkoa). Hirugarren urtez antolatu ditu Mintzola elkarteak, Bertsozale Elkartearen, Kantuzale Elkartearen, Antzerkizale Elkartearen eta Ipuin kontalarien taldearen laguntzaz.

Ekitaldi honetan, euskararen hizkerak hartu dituzte mintzagai antolatuak; batez ere, "ahozko genero berezituaren alorrean (ipuina, kantua, bertsoa eta antzerkia) darabiltzagun erregistro ezberdinak, ahozko ekoizpenean erregistroak erabiltzean sortzen zaizkigun zailtasunak eta irtenbide edo proposamen berriak zein diren jakin eta zabaldu nahi izan dugu". Horretarako egitarau oparoa apailatu dute azaroaren 7tik 9ra bitartean. Hiru egunetako

bakoitza sorkuntza arlo bati eskainiko diote, hitzaldiak, mahai-inguruak eta bestelako ekitaldiekin.

Azaroak 7

- 9:15-10:00. Euskara batua eta euskalkiak antzerkian; Ipar Euskal Herriko talaiatik. Manex Fuchs.

- 10:00-10:45. Euskalkiak traba edo aldeko dira antzerkian? Ainara Gurrutxaga.

- 10:45-11:30. Antzezlea gidoiaren hizkuntza egokitzen duelarik bere egin arte. Itziar Ituño.

- 11:45-13:00: 'Juglarea, puta eta eroa' antzezlan.

- Mahai-ingurua: Manex Fuchs, Ainara Gurrutxaga, Itziar Ituño, Ximun Fuchs.

Azaroak 8

- 9:15-10:15. Euskara batuaren eta euskalkien lekua bertsogintzan. Xabier Amuriza.

- 10:15-11:15. Erregistroaren bila. Andoni Egaña.

- 11:45-12:45. Kantaldi-hitzaldia. Mikel Markez.

12:45-14:00: Mahai-ingurua: Xabier Amuriza, Andoni Egaña, Mikel Markez.

Azaroak 9

- 9:15-10:15. Kontalariaren jarrera eta hizkuntza egokitzapena haurrei kontatzerakoan. Pello Añorga.

- 10:15-11:15. Hizkuntza egokitasunaz eta zuzentasunaz ipuin kontaketa. Joxemari Karrera.

- 11:45-12:45. Ipuin kontaketa. Koldo Amestoy.

- 12:45-13:45. Pello Añorga, Joxe Mari Karrera, Koldo Amestoy.

Teknologia berriak musika irakaskuntzan erabiltzen ikasteko jardunaldia egingo dute Kursaaletan

Euskal Herriko Musika Eskolen Elkartek (EHMEE) teknologia berriei buruzko jardunaldi bat egingo du azaroaren 10ean, Donostiako Kursaal jauregian. Teknologia berriak ezagutaraztea eta musika hezkuntzan nola aplikatu daitezkeen azaltzeko xedea izango du egun osoko saio honek, eta 'Teknologia berriak: materiale didaktikoaren sorkuntzan' izenburupean egingo da.

Izen emate epea azaroaren 5ean itxiko da, eta bitartean www.ehme.eu

webgunean egin ahal izango da.

Hauxe izango da eguneko egitaraua:

-9:00: Harrera

-9:30-11:30: "APPak musika heziketa erreminta bezala" hitzaldia, Antonio Domingo perkusionistaren eskutik.

-11:30: Atsedena.

-12:00-13:00 Musescore partitura editore aplikazioaren aurkezpena, Jokin Sukunzaren eskutik.

-13:00-13:30: 'Freeangle'.



-13:30 Kursaaletan bazkaria.

15:00-17:00: 'Web gunea 2.0 musika heziketaren zerbitzura' izeneko mintzaldia, Maria Jesus Caminoren eskutik.

GAIA

Ekialdeko kontenplazio-teknikak

Mendebaldeko ikasgeletan





“Barreiatuta dagoen arreta nahierara ekartzeko ahalmenean dautza giza gogoia, zentzu ona eta nortasuna”.

WILLIAM JAMES

Azken urteotan, meditazioa egiten hasi dira zenbait eskolatan. Meditazio-teknika mendez mende erabili dute Ekialdean, eta, orain, Mendebaldean hasi dira probatzen, ikasteko prozesuan sor daitezkeen oztopoak gainditzeko asmoz. Bestalde, hainbat diziplinatako ikertzaileen eta pentsalarien iritziek kontenplazio-praktikak izan dezakeen garrantzia azpimarratzen dute. Hezkuntzan, neurologian eta psikologian zenbait ikerketa egin dituzte, eta ohartu dira badugula zer ikasia kontenplazio-tradizioak eskaintzen dituen tresnetatik.

G



Axun LARBURU
KAZETARIA ETA IRAKASLEA

XXI. mendean bizi garenok erlojupeko bizimodua egiten dugu, presaka bizi gara. Komunikabideek izandako iraultzak bizkortu egin ditu bizimoldeak, distantziak hurbildu egin ditu, aukerak zabaldu. Gizarte interkonektatu batean bizi gara: gizarte konplexu batean, espazio eta denbora berrian. Horren ondorioz, gero eta gauza gehiago ikasi behar ditugu. Haurrek, prozesatzeko, estimulu gehiago dituzte gaur egun, esate baterako. Horregatik, haurrei gero eta gaitzagoa gertatzen zaie zentratzea, arreta jartzea eta erabakiak hartzea. Desoreka horiek leuntzeko asmoz, urrats berriak egin dituzte zenbait eskolatan. Meditazioa izan da bidea. Ekialdeko kontenplazio-praktikak antidoto gisa erabiltzen dira eskolatan, egungo bizibide bizkor eta ktramilatsuaren kontrako antidoto gisa, baita behar berriei erantzuteko pilula osasuntsu gisa ere.

Etokizuneko gaitzak

Azken urteotan, Arreta Galdu - Hiperaktibitate Asaldura izenez ezagutzen den sindromearen berri izan dugu komunikabideetan. Eusko Ikaskuntzaren Euskomedia Fundazioaren *Eusko-news & Media* blogean, Txabi Txakartegi pediatriak bere kezkek plazaratu ditu, horrelako gaitz psikikoek izango duten garrantziaz jabe gaitezen.

Haren hitzetan, “lehen mailako arretan diharduten pediatriek argi daukate datozen urteetan –etorkizunean, oro har– gaixotasun fisikoak edo orga-

nikoak bezain garrantzitsuak izango direla umearen portaerarekin lotutakoak edo haren psikologiarekin erlazionatutakoak”. Horixe da, hain justu, *Delphi* ikerketak 2000. urtean *Haurren Osasunaren eta Pediatriaren etorkizunari* buruz ateratako ondorioa. *Delphi* ikerketak, Espainiako estatuko pediatria ugariaren parte-hartzea izan zuenak, zera dio, zehazki: “Ume eta nerabeen buruko arazoek gora egingo dute 2001-2013 urteetan; horregatik, horiei buruzko ikerketa-lerroek eduki behar dute lehentasuna, genetika, tumor eta infekzio berriei buruzko ikerketen aurretik”.

Datozen urteetan ugarituko diren gaitzen artean, betiko gaixotasun psikiatrikoek gain, portaeraren asaldura aipatzen du Txakartegik; hau da, ume normalek eskolan, familian eta gizartean normalak ez diren portaerak erakusteko arriskua: ikasteko arazoak eta eskola-porrota; familia barneko distortsioak...

Adituen ahotik jaso dugu, hortaz, haurren portaerarekin erlazionatutako asaldurak aniztu egingo direla datozen urteotan. Eta disfuntzio horien jatorriari buruzko eztabaidetan adostasunik ez badago ere, argi dago arreta fokatzeko garaian gizarte hiperestimulatu batean bizitzeak oztopoak dakarzkigula.

Ikerketek erakutsi dute arreta eta adimena ikasgeletan berariaz landuz gero, frustrazioak behera eta autonomiak gora egiten dutela



Meditazioa Mendebaldeko eskoletan

Haurrei meditatzen irakastea nahiko gauza berria da Mendebaldeko herrialdeetan; Ekialdean, ordea, ez. Izan ere, Ekialdean, meditazioa oinarritzko arloa da haurren lehen mailatan, eta, eskolan ere, haurrei bizitza guztian onuragarri izango zaizkien hamaika teknika irakasten dizkiete.

Haatik, Mendebaldeko hezkuntza-sistemetan ere probatu dituzte Ekialdeko praktika horiek azkenaldian, eta horien onurak ere plazaratu dira. AEBn, adibidez, meditazioa arrakasta izaten ari da ehunka zentrotan. Detroiteko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeak dira horren adibide. Ikastetxe horietan, eskolak ez dira kanpai-hotsekin hasten; horren ordez, *loto* posturan esertzeraz gonbidatzen dituzte ikasleak, begiak ixtera eta hamabost minutuz sakonki meditatzeraz.

Massachusetts estatuko hezkuntza-sistema ere arrakasta horren adierazle da: hango agintariek meditazioa nahitaezko ikasgai bihurtu nahi dute.

Halaber, Kaliforniako Bigarren Hezkuntzako eskola publikoetan, non indarkeria oso gertutik bizi duten, programa bereziak jarri dituzte abian meditazio transzendental lantzeko. Eta baliagarri zaie ez soilik heriotza gertutik bizi duten haurrei eta haien familiako kideei, baita estres horrek sortzen duen uhinean harrapatuta dauden irakasleei ere.

Bestelako arazobatek ekarri du meditazioa AEBko zenbait estatutako eskola publikoetara: espazio-faltak. Arazo horrek berezi bihurtu ditu New Yorkeko haur eta gazteen eskolak: yoga



Benetan harrigarriak dira Erresuma Batuko eta AEBetako datuak: irakasleen %50 inguruk profesioa uzten du lehen bost urtekoan

egiten dute egunero gorputz-hezkuntzako eskoletan. Leku faltak eta irakasleen artean ahoz aho zabaltzen ari diren aburuek, beraz, Ekialdeko kontenplazio-praktiken ugaltzea bultzatu dute, munduko hiririk kosmopolitenetako ikastetxeetan.

Oro har, meditatze ohitura zabaltzen ari da AEBn, azken urteotan. 2007an Estatu Departamentuak egingako txosten batean bildutako datuek adierazten dutenez, hamaika biztanle-tik batek ohiko praktika du meditazioa. Eta herrialdeko hezkuntza-sistema

astindu du moda berri horrek.

Britainia Handira salto eginez, berriaz, jakin berri dugu David Lynch zinema-zuzendariak meditazioaren aldeko kanpaina egin zuela 2007an. Haren helburua praktika hori eskoletan sustatzea zen. Lynchen ustez, "indarkeria-aren, suizidioen eta droga ilegalen kontsumoaren aurkako antidotoa da" meditazio transzendentalaren praktika. Zinema-zuzendariak 30 urtez praktikatzen du meditazioa, eta 20.000 gazte kontzertu zituen egunean bi aldiz eta hogeita minutuz medita zezaten. David

Lynchen ustez, meditazioak bakea ekar dezake mundura.

Orain artekoak adibide batzuk baino ez dira, eta aurki ditzakegu horrelako bideari ekin dioten eskola-eredu gehiago ere, bai Ameriketara eta bai Europan.

Hain urrutira joan gabe, Euskal Herrian ere badira eskoletan kontenplazio-teknikak erabiltzeko saioak; besteak beste, hor dugu Igantziko eskola publikoan izandako esperientzia, edo Berako Labiaga ikastolakoa. Igantziko eskolan, emozioak lantzeari protagonismoa ematea erabaki zuten orain bi urte. Eskola txikia izateak dituen abantailaz baliatuz, beste diziplina batzuekin batera yoga euren programetan txertatzea erabaki zuten.

Zientziak egindako zenbait ikerketa

2010. urteko urrian, *Munduko biritarrak XXI. menderako bezten* izeneko batzarra egin zuten, Washingtonen. Jardunaldiotan, dalai lama eta hainbat arlotako zientzialariak elkartu ziren, eta hezkuntzak kontenplazio-tekniken onura zein neurritan profita dezakeen aztertu zuten. Izan ere, zientziak berriki deskubritu du meditazio- edo kontenplazio-teknikek haur, gazte eta helduen egoeran, kontzientzian eta esentzian eragiten dutela, zehazki zer neurritan jakin ez arren.

“Kontenplazio-praktika Mendebaldean erabiltzeko saialdia ez da berria Giza eta Emozio Hezkuntzaren arloan”; horiexek dira Washingtongo batzarrean parte hartu zuen emakume baten hitzak, Linda Lantetieri andrearenak. Lantetieri aditua da Emozio eta Giza Ikaskuntzan, eta, Washingtongo batzar hartan, Eduard Punset zientzidibulgatzaile eta idazleari zehaztapen haxe egin zion: “Bai, egin dira saioak ikasleekin eta irakasleekin, adimena

entrenatzen eta emozioak kontrolatzen ikas dezaten. Hala ere, berria da jendeak horretan trebatu nahi izatea”. Lantetieriren ustez, kontenplazio-tekniken bidez haurrengan nolabait amultsu eta bihozberagoak izateko gaitasuna areagotu daitekeela ohartzea da zirraragarriena.

Haurrei adimena kontzienteki entrenatzen irakatsi behar zaiela uste du 40 urteko eskarmentua duen irakasle horrek, “meditazio-tekniken antzekoen bidez lan eginez edota ikasgeletan bakearen txokoa deritzogunaren bidez, lasaitzeko, burua baretzeko eta atentzioa jartzen hasteko balio izango baitu horrek”.

Izan ere, New Yorken egindako ikerketa batean, ikasgeletan berriaz arreta eta adimena landuz gero frustrazioak behera eta autonomiak, berriz,

“Nor bait oldarkorra denean, normalean ez du arreta jartzen eta, hala, ez du emaitza onik lortzen, ez matematikan, ez irakurketan”

gora egiten zuela jabetu ziren Lantetieri eta haren taldea. Lantetieriren aburuz, bata zein besteak geure seme-alaben ikasteko gaitasuna areagotzen dute.

Bestalde, Mark Greenberg psikologoaren ikerketek haxe frogatu nahi dute: eskola-jarduerak eraginkorrak izan daitezke, haur eta gazteen gaitasun sozialak hobetzeko. Greenbergek Pennsylvaniako unibertsitatean lan egiten du. Batzarrean ingurumarian Punseti eskainitako elkarrizketan, haren taldeak egindako ikerketa baten berri eman zuen; yoga edo presentzia erneari buruzko ikerketa bat da, hain zuzen.

Greenbergen taldea Baltimoreko hainbat eskolatan aritu zen 11 eta 12 urteko haurrekin yoga-praktikak egiten. Bost eskola-egunetatik lautan, eskolatik atera eta kafetegira edo beste areto



Ekialdeko kontenplazio-teknikak

batera joaten ziren, eta 30-40 minutuz yoga egiten zuten. Gero, eskolako ohiko lanekin jarraitzen zuten. Yoga-eskolatan, haurrek hainbat ariketa fisiko egiten zituzten lehen 20-30 minutuetan; gorputz-atalak luzatzen eta tolesten zituzten, eta, hala, energia askatzen zuten. Ariketak amaitu ondoren, koltxonetan etzateko eskatzen zitzairen, eta bost minutuz arreta-meditazioa egiten zuten: batzuetan, arnasketan jarrarazten zieten arreta, eta pentsamenduei pasatzen utzi behar zieten; beste batzuetan, bihotz-taupadak entzunarazten zizkieten; azkenik, errukiari buruzko meditazioa ere landu zuten, bai pertsona ezagunenganako errukia, bai ezezagunenganakoa.

Greenbergek hiru ondorio nagusi ateratu zituen. Batetik, frogatu zuen hamabi astez egindako yoga-saioek oso modu adierazgarrian gutxitu zituztela haurren zenbait arazo, esate baterako, *hausnarrean egotea* deitzen dutena, hots, etengabe kezka- eta antsietate-pentsamendu bera edukitzea. Greenbergen hitzetan, indarkeria-arriskua- ren beldurrez bizi diren haurrek kezka berak izaten dituzte buruan, behin eta berriz. Ikerketaren bigarren ondorioa hauxe izan zen: haurrek intrusio-pentsamendu gutxiago zituzten, hau da, pentsamendu kontrolaezin gutxiago iristen zitzairen burura. Eta, azkenik, hirugarren hobekuntza ere ohartu ziren: haurrek “emozioak gobernatzeko trebetasun handiagoa” agertzen zuten.

Greenbergen ustez, “hasiera izan zen ikerketa, gai hauek ikertzeko moduz gara daitekeen landare baten kimu bat”. Adituak uste du ikerketa horretatik ezin dela ondorioztatu haurrek eskola guztietan yoga egin behar dutenik; haren hitzetan, “nolabait, ideia bat

ematen digu, eta etorkizun oparoduen hasiera bat badela hor jakin dezakegu, eta orain ikerketa hobekia egin behar ditugula”.

Mark Greenberg indarkeriaren eta delinkuentziaren prebentzioan aritzen da batez ere. Oldarkortasuna, ikasgeletako errendimendu eskasa, eta arretagabezia eta horrelako arazoak saihesten ahalegintzen da. “Norbait oldarkorra denean, normalean ez du arreta jartzen, eta, horrela, ez du emaitza onik lortzen, ez matematikan, ez irakurketan”, azaldu zion Punseti. Prebentzioaz hitz egitean, haurrengan babes-faktoreak ezarri behar direla azpimarratu zuen: “3 edo 4 urteko haurrekin hastea komeni zaigu, eta, asaldatzen direnean, baretzen laguntzea, haiengan auto-kontzientzia-sentipen bat garatzea, sentimenduak ezagutzen ikas dezaten; esate baterako, haserre noiz dauden jakin dezaten».

Mark Greenbergek “dortokaren teknika” azaldu zuen autokontzientzia nola gara daitekeen ulertzeko. Teknika hori 3 edo 4 urteko umeekin egiten du-

te. Haurrei dortoka baten istorioa kontatzen diete: “Dortokak arazo asko ditu lagunekin ondo konpontzeko, diziplina-arazoak ditu gelan. Batzuetan, oso urduri jartzen da amak edo irakasleak esaten dion gauzaren batengatik, baina bere oskolean sartzen ikasten du, eta arnasa sakon hartzen, eta baretzen”.

Hala, haurren bat aztoratzen denean, dortokaren metafora erabiltzen dute. Lehenbizi, besoak gurutzatzeko eta arnasa hartzeko eskatzen diete, eta, gero, hauxe esaten diote: “Agian, une egokia da dortokarena egiteko”. Hala-ko tekniken bidez, gorputza eta arnasketak baliatuz, haurrei beren burua lasaitzen irakasten diete.

Horixe bera egin dute Herbehereetan, Suitzan eta beste zenbait herrialdeetan, 30 urtez egindako ikerketetan. Egiaztatu ahal izan dutenez, haurrei lasitzeko teknikak erakusten zaizkienean eta euren sentimenduak identifikatzen eta adierazten ikasten dutenean, hobera egiten dute besteekin harremanak izateko duten gaitasunak nahiz haien gaitasun akademikoek.





Hezkuntza egungo gizartearen zerbitzura

Washingtongo batzarrean izandako beste zientzialari bat dugu Richard Davidson. Haur eta helduen nahasmen-emozionalen jatorri neurologikoa ikertzen du, eta aditua da garunaren plastikotasunean. Haren ikerketatalde handiak teknika modernoak erabiltzen ditu garunari behatzeko. Gure inguruak gure emozio-egoeran nola eragiten duen jakin nahi dute. Horrez gain, emozioak gure eguneroko bizitzan nola erregulatzen ditugun ikertzen ari dira, eta erronka emozionaleri aurre egiteko nola eragiten dioten elkarrigorputzak eta garunak.

Hala dio Richard Davidson: “Mendebaldeko zientziaren ikuspuntutik, batez ere neurozientziaren eta psikologiaren ikuspuntutik, esan dezakegu arreta, erregulazio emozionala eta ikaskuntza direla kontenplazio-praktikaren jomuga; buruko prozesu horiek dira praktikaren bidez alda daitezkeenak”. Hori guztia gure garunak duen plastikotasunari esker gertatzen da. Izan ere, neuroplastikotasunari esker, “entrenamendu edo esperientzia bidez, garuna alda dezakegu”. Davidsonek honela laburbildu zuen jardunaldien mezuetak: “Gure garunaren erantzule izan gaitzake, eta gure seme-alaben adimenaren garapen osasuntsuan oinarrituko diren baldintzak eta giroa sor ditzakegu”.

Baldintzak eta giro egokia sortzeko, ordea, irakasleak gaitu beharko dira, zalantzarik gabe. Baina trebakuntza horretan hankamotz gabiltzala uste du

Mark Greenbergek: “Ez da mundu osoan unibertsitate-irakaslearen garapen sozial eta emozionaleri buruzko eskolak jasotzea eskatzen duenik”.

AEBko eta Erresuma Batuko datuei begiradaxo bat ematen badiegu, harri-garriak direla ikusiko dugu: irakasleen %50 inguruk lanbidea uzten du lehen bost urteetan. Greenbergek ez du zalantzarik: “Giza kapital handia galtzen da hor, eta, askotan, oso lan zaila delako gertatzen da hori”. Izan ere, irakasle asko emozionalki lehertu egiten dira, eta erreta bukatzen dute. Greenbergen ikerketen arabera, porrot hori “gizarte-harremanak eta emozioak bideratzeko gaitasuna ez lantzearen ondorio da, bide horrek lagunduko baitu ikasgelan haurrak lasaituko dituen egoera sortzen”. Eskolan gaitasun sozial eta emozionalak lantzeak haurrei euren artean ondo konpontzen laguntzen die, eta baita bihozberagoak izaten ere.

Orain arte irakasleak ez dira zentratu alderdi akademikoan baino: irakurketan, matematikan eta zientzietan. Hala, Penn State's Collegeko Osasun eta Giza Garapena departamentuko psikologoaren ustez, irakasleak “matematika-, irakurketa- eta zientzia-irakasle bihurtu dira”. Alabaina, irakasle gehienek haurrekin “ondo konpondu nahi zutelako” aukeratu zuten euren lanbidea: “Haurrak maite dituzte, eta haiekin pasa nahi dute denbora; hezi nahi dituzte, eta bizitzarako prestatu... Horretarako zenbat eta aukera gehiago eskaini, trebetasun gehiago eman, or-

duan eta gehiago gozatzen dutela ohar-tu gara”.

Preseski, Greenbergen taldeak plan bat landu zuen hainbat irakaslerekin. Helburua irakasleekin emozioak eta autokontrola kudeatzeko zenbait teknika lantzea zen, gero haiek haurrei irakasteko; eta, batetik, irakasleek era eraginkorragoan irakasten zutelako ohar-tu ziren, eta bestetik, haurren jarrerak ere hobera egiten zuela, eta baita haien gaitasun kognitiboak ere.

Adituen esperientzia eta ikerketak adierazgarriak dira, eta ondorio argi bat plazaratzen dute: gure mundu globalizatu honetan, hezkuntza-sistemak egokitu egin behar dira, zaharkituta baitaude. Izan ere, beste erronka batzuei aurre egiteko sortu ziren iraganean. Hala, denboran aurrera egin ahala, gero eta mugatuago bihurtu dira.

Zientziak erakutsi digu ikaskuntzaren bidez garuna molda dezakegula; garunaren plastikotasunari esker, adibidez, bizikletan ibiltzen ikas dezakegu, edo hizkuntza anitzetan treba gaitzake. Eta zergatik ez joan aurrerago? Zergatik ez erabili gure garunaren malgutasun itzela? Zergatik ez ikasi zoriontsuagoak, arduratsuagoak eta laguntzaileagoak izaten? Hezkuntza-sistema berri batek, langileak sortzeaz gain, hiritarrek sortu beharko ditu. Hezkuntzaren iraulketak meditazioa eta horrelako teknika berriak txerta ditzake, pertsona hobeak hezteko.

“Arnasketak egiten ikastea opari bat da haurrentzat”

Musika-ikasketak egiten ari zela, yogarako zaletasunak harrapatu zuen Marina Pintos piano-jotzailea. Bi diziplina horiek landu ditu azken hogeit urteotan. Gaur egun, eskolaz eskola dabil irundarra, yoga egiteak dakartzan onurak partekatu nahian. Eskarmentua abiapuntu hartuta, haurrak eta irakasleak trebatzen dihardu, yogaren bidez besteak beste erlaxatzen eta arreta lantzen ikas dezaten.

Nolatan hasi zinen yoga egiten?

Hasiera batean, bizkarreko mina izaten nuelako hasi nintzen yoga egiten: tentsioagatik eta, bizkarreko minez egoten nintzen. Gainera, jakin-mina neukan: Ekialdeaz, espiritualtasunaz... Horiek izan ziren arrazoi nagusiak yoga egiten hasteko. Pixkanaka, bizkarreko minak desagertu egin ziren, eta beste gauza asko deskubritu nituen, piano-ikasle nintzen aldetik asko erabili nituenak.

Zer deskubritu zenuen?

Hitz gutxitan esateko, gorputzaren kontzientzia lortzea izan zen garrantzitsua, gorputza ezagutzea. Konturatzeari noiz zegoen gogortuta, nola lasaitu, eta abar. Gorputza asko landu nuen; izan ere, ni nahiko zaharra nengoen orain hogeit urte. Nire artikulazioak gogortuta zeuden, eta muskuluak motz, mugatuta; aise nekatzen nintzen. Hala, gorputza arindu egin zitzaidan.

Bestetik, arnasketaren bitartez, emozioak lasaitzen ikasi nuen, eta horrek asko lagundu zidan azterketetan, adibidez.

Gainera, nire kontzentrazio-maila

izugarri handitu zen, eta asko lagundu zidan horretan yogak, mementoa bizitzeko ikasten baita, oraina bizitzen: arreta etengabe arnasketara ekarriz, zure gorputzera.

Hori al da haurrek gaur egun behar dutena?

Eskoletan, adibidez, kontzentrazio-maila handitzeko behar handia dago; baina ez hori bakarrik: haurrak etxetik emozioak aztoratuta dituztela etortzen dira. Hori baretu beharra dago. Adimena izugarri estimulatuta izaten dute, eta oso zaila egiten zaigu hori geratzea. Ez haurrei bakarrik, helduei ere gauza bera gertatzen zaigu. Haurrei gelan kontzentratuta egoteko eskatzen diegu, lasai egoteko, adi egoteko... Baina gu geu ere askotan ez gara horretarako gai. Kontzentratzen ikastea prozesu bat dela ohartu behar dugu. Izan ere, haurren kontzentrazio-maila handitu daiteke, zenbait ariketa eginez.

Lan handia eskatzen al die kontzentratzeak haurrei?

Haur bati ezin zaio eskatu ordubetez meditatzen egoteko, baina bost minutuz egoteko eska diezaiokegu. Meditatzeko, ordea, eguneroko praktika eskatzen du, egunero pixka bat egitea. Eta egiten ez bada, ez dira gertatzen neuronon konexio horiek. Gaitasuna hor dago, baina ez da garatzen. Beraz, ezinbestekoa iruditzen zait haurrei emozioak kontrolatzen erakustea, zenbait mementotan erabili ahal izateko: azterketetan, urduri daudenean, hasterretzen direnean... Eta, horretarako, arnasa oso tresna egokia da. Horregatik, uste dut arnasketak egiten irakastea

oparia egitea dela. Oparia egiten diet haurrei, eta, gero, haiek ikusiko dute erabili ala ez.

Horrez gain, garrantzitsua da mementoa bizitzea, oraina bizitzea. Hori lantzeko, badaude ariketak. Badago ariketa txikiekin osatutako prozesu bat, eta, egunero-egunero eginez gero, adimena ere zentratu egiten da, eta ohitu egiten da unea bizitzera. Azken finean, nik uste dut hori bizitzen irakastea dela.

Bizitzen irakatsi yogaren bidez?

Ni konturatzen naiz ez dakigula bizitzen. Ekintzak egiten ditugu, eta, denbora guztian, halako bola batean bezala gabilta, inertziar. Etengabe gauzak eginez bizi gara, egin behar direla uste dugulako. Baina ez gaude benetan hor, ez gaude mementoan, ez dugu hori bizi. Ez gure zentzumenekin: ez jaten dugunean, ez begira gaudenean, ez ukitzen dugunean... Ezta espiritualki ere, presentzia horrekin. Hala, bada, nik uste dut haurrekin ari garenean helburua ez dela meditatzen irakastea; bai, ordea, ariketa txikien bidez mementora ekartzea. Gorputza sentitzea, gorputzatal bat gogortu dezaketela sentiaraztea, eta gero, lasaitzea, gorputz-atala nola lasaitu den sentituz; arnasketa batzuk egin ondoren, nola sentitzen diren nabaritzen dute. Hortxe gaude.

Zer egin zenuten Igantziko Herri Eskolan 2010-2011 ikasturtean?

Igantzin, yogako eskolak eman genituen. Astean behin elkartzen ginen, ordubeterako.

Haurren adinaren arabera, saioa desberdina izaten zen. Noski, 3 urteko-



Marina Pintos yoga irakaslea

ek ez zuten 12 urtekoek egiten zutena egiten. Txikiak ezin izaten diote eutsi kontzentrazioari eta isiltasunari. Eskolak haien neurritik egokitzen dira.

Eta nola sortu zen proiektu hori?

Bada, Joxean Ortega zuzendariari esker. Hark yoga egiten du aspalditik. Bai hark, bai haren inguruan dauden irakasleek proiektu bat egin zuten; proiektu hari esker, alde batetik, haurrek yoga-eskolak jaso zituzten, eta bestetik, pintura espresiboa landu zuten.

Eta haurrek nabaritu dute aldea? Zuk nabaritu al duzu?

Gutxitxo izan da, motzegia. Handienekin 50 minutuz aritzen ginen; txikienekin, 30 minutuz. Bada, orduan... tanta txikiak dira. Oraindik goiz da esateko. Nire ustez, astean behin yoga-saio bat egitea oso ona da arlo fisikoa (arnasketa eta erlaxazioa) lantzen dire-

lako. Izan ere, haurrari erlaxatzen irakastea ona da, haiek ere estresa eta antsietatea nabaritzen dutelako. Baina, gero, horrez gain, aparte landu beharko litzateke.

Hori gainditzeko asmoz diseinatu da Berako eskolako proiektua. Hain zuzen, eskolako lehenengo bost minutuetan arnasketak eta ariketak egiten dituzte, zentratzeko eta lasaitzeko helburuz. Nik irakasleak trebatu ditut, gidatu egin ditut nolabait, gero haieku gungero-egunero landu dezaten.

Igantziokoari falta zitzaion jarraipena litzateke, beraz, Berako esperientzia?

Nire ustez, Berako proiektua oso polita da, maiztasunez egiten dutelako yoga, eta ez astean behin.

Nik egunean hiru saio labur egitea gomendatu diet; lehenengoa, goizeko lehenengo orduan; bigarrena, jolas-garaietan; eta azkena, arratsaldean. Izan ere, memento horiek izaten dira aztoratzeko bidea ematen dutenak: lagun batekin haserretzen direla, liskarrak dituztela... Hor beti da zerbait. Eta, noski, burua ezin da kontzentratu, emozioak asaldatuta baldin badaude. Ez da erraza izango, haurrek ere paso egiten baitute askotan, ez baitaude ohituta. Baina, eguneroko ohitura hartuz gero, haiek ere nabaritu dute, eta eskertuko dute.

Nolakoak dira yoga-saioak haur txikiak?

Egokitu egiten ditut. Txikiak *asana* egiten ditut. Posturak dira, jarrerak. Animalia edo landareen izenak izaten dituzte: katua, txakurra, igela, erbia... Marrazki batzuk ateratzen dizkiet txikienei. Handiei txartel batzuk erakusten dizkiet. Hala, lehenengo, jarrerak ikasten ditugu, eta, gero, jokoak egiten ditugu: zenbaki bat esan eta ea zein at-

ratzen den, edo txartelak hartu...

Arnasketak lantzeko, berriz, ahoz gora etzanarazten ditut, eta, hala, sabela sentitzen dugu. Zenbait ariketa egin daitezke: eskuak sabel gainean jarri; edo paper baten bidez, nola mugitzen den antzeman...

Handiekin beroketa batzuk egiten ditugu, eta baita eguzkiari agur egitean datzan ariketa ere. Yogan egiten dugun ariketa berezi bat da, oso-oso. Eguzkiari agur egitean, artikulazio guztiak lantzen dira, eta onura ugari ditu horrek.

Kontzentrazio-ariketak ere egiten ditugu, baina oso ariketa motzak izaten dira. Txikiak, adibidez, ez dut egiten kontzentrazioarik. Batzuetan, eskuak belarrien gainean jartzen ditugu, eta gure arnasa edo isiltasuna entzuten dugu.

Bukatzeko, erlaxazioa egiten dugu. Irudizko bidaiak izaten dira. Leku batean gidatzen ditut; esaterako, hondartza batean daudela esaten diet, eta, kometa bat hartuta, hara igoko direla, eta hodei batean eseriko direla. Bidaiatzera gonbidatuko ditut haurrak, paisaiak ikustera. Horrela egiten dut, irudimena lantzeko helburuz, bisualizazioaren teknika normalizat har dezaten. Horrelakoak egin daitezke 10-12 urte bitartekoekin. Eta eskertzen dute.

Haurrak dira etorkizuna, eta bizitza egokitu zaigun garai hau nahiko nahasia da: estimulu gehiegi, oso azkarra... Beharko dute tresnarik, pixka bat pausatzeko, ezta?

Bai, baina gurasoen aldetik ere laguntza behar da. Zeren, ikastetxeetan asko egin daiteke; baina, nire ustez, etxean egiten ez bada, zaila da mamia ikustea. Pixkanaka-pixkanaka sortuko dira ikastaroak irakasleentzat, gurasoentzat eta denontzat.

francesco tonucci



ELKARRIZKETA

Psikopedagogo, pentsalaria eta marrazkilaria

“Eskolak gutxi batzuentzat izaten jarraitzen du, baina denei eskaintzen zaie”

Hik Hasi-k Francesco Tonucci (Fano, Italia, 1941) psikopedagogo eta marrazkilaria elkarriketatu zuen Erroman, joan den irailean. Haurren garapen kognitiboaren eta heziketa metodoaren arteko harremana aztertu du Tonuccik, eta bere ikerketak hainbat liburutan jasotzeaz gain, komikigintza ere baliatu du, Frato goitizenaren erabiliz, bere kezak eta gogoetak zabaltzeko umorearen bidez.

Haurren Hiria izeneko egitasmoa-
 rengatik da ezagun batez ere Tonucci. Hirien antolakuntza haurren behar, eskubide eta ezaugarrietara egokitzea proposatzen du 1991n sorturiko proiektu horretan, bi helburu zehatzekin: haurra hirian zehar bere kasa eta helduen kontrol zorrotzetik libre mugitzeko autonomia bermatzea –horren barruan, haurrak eskolara bakarrik joateko proposamena garatu du–, eta haien parte-hartzea sustatzea hirieta-ko haur kontseiluen bidez.

Eskolaren, haurren bizipenen eta hiriaren arteko harremana da Tonucciren kezka nagusietako bat. Haren iritziz, haurtzaroa bizitzeko arazoak dituzte gaur egungo haurrek: “Goiz jasotzen dituzte helduen ezagutzak, baina erabat heldugabeak dira beren kasa mugitzeko eta moldatzeko hirian”. Halaber, umeei eskolan ikasitakoa ez dator bat eskolatik kanpoko esperientziarekin. Haurrek ikasgelatik kanpo dituzten bizipenak eskolara eramatearen eta beste ikaskideekin lantzearen aldekoa da pentsalari italiarra, baina horretarako ezinbestekoa deritza haurrek esperientzia propioak bizitzeko askatasuna eta denbora libre izateari eta “umeei entzun egingo dien” eskola eredu bat eratzeari.

Tonuccik elkarriketan esandakoen interesa dela medio, bi zatitan banatu dugu. Heziketa metodoaz eta eskola ereduaz esandakoak jaso ditugu zenbaki honetan, eta haurren eta hiriaren arteko harremanari buruzkoak eskainiko dizkizuegu abenduak.



Haurren bizitzako lehen urteak bereziki garrantzitsuak direla diozu. Zergatik?

Haurren garapena ulertzeko bi modu daude, eta bata edo bestea izan, heziketa ulertzeko modua ere ezberdina da. Ideia zahar baten arabera, haurrak edalontzi hutsak dira eta heziketaren zeregina da haiek betetzea. Umea jaiotzean zerotik hasten da, ez daki ezer egiten, eta babestu beharreko animalia zauritu bat da. Haurra hazi ahala gora egiten du bihurtzuneak, eta umek 6-8 urte dituenean gertatzen da hazkunderik azkarrena. Garai batean ‘arrazoimenaren adina’ deitzen genion adin tarte horri, orduan ezartzen baititugu oina-

rrizko irakaspenak, hala kulturalak nola erlijiosoak. Teoria hau, nahikoa zaharra izanagatik, bada oraindik helduek eta instituzioek haurtzaroa ulertzeko duten moduaren adierazgarri. Horren arabera, bizitzako gauza garrantzitsuenak ondoren etortzen dira beti, bihurtzune horretako puntu bakoitzak aurrekoa gainditzen du eta hurrengoaren azpitik dago. Horrek esan nahi du Haur Hezkuntza Lehen Hezkuntzaren prestakuntza dela, eta Lehen Hezkuntza Bigarren Hezkuntzarena... eta horrela unibertsitate arte. Horrek hierarkia bat sortzen du, hots, haur txikiarekin lan egiten duten helduei garrantzi txikiagoa aitortzen zaie eta ondorioz gutxiago kobratzen dute, lan ordu gehiago izan arren. Italian berderen, Haur Hezkuntzako irakasleek lan ordutegi zabalagoa dute, baina Lehen Hezkuntzako irakasleek baino soldata txikiagoa jasotzen dute, eta Lehen Hezkuntzakoek Bigarren Hezkuntzakoek baino txikiagoa. Gehien irabazten dutenak unibertsitateko irakasleak dira, lan ordu didaktiko gutxien izan arren.



BANOA HAUR ESKOLARA

francesco tonucci

E

“Derrigorrezko hezkuntzaren hasierako adina aurreratzeak ez du kalitatea bermatzen

”

“Lehen urteak dira umearen heziketa aberatsenak; hortaz, Haur Hezkuntzan jarri behar ditugu irakasle onenak


”

Zu ez zatoz bat ideia horrekin.

Ez, okerra delako. Plutarco esan zuen erretzen den egurra bezalakoa dela adimena. Errealitatek gertuago dagoen irudia dela iruditzen zait. Erretzen den egurra osorik eta aldi berean erretzen da, eraldatzen joaten da. Edalontziaren teoriaren arabera, ideiak gainjartzen dira haurren adimenean. Hori dela eta, eskoletako proposamen didaktiko tradizionalek diote ideia errazenetatik hasi behar dela haurra hezten. Irakasleek uste dute badirela errazago barneratzen diren nozioak, oinarritzkoenak, eta haiek sendotu ostean etorri behar dutela besteek, gradualki.

Sistema horrekin, irakasleak auke-
ra du denbora tarte bat igaro ondoren

edalontzia zenbat bete den neurtzeko. Horren atzean, berdintasunaren ideia dago. Hau da, onartzen da abiapuntuan ikasle guztiak hutsik daudela, eta hortaz, berdintasun egoeran. Hortik dator irakasleek esan ohi duten esaldi ezagun hori: “niretzat ikasle guztiak berdinar dira”. Berdinak dira inork ez dakielako ezer. Irakasleak bere jakin-duria, bere ezagutza eta bere kultura jartzen ditu ikasleen zerbitzura, eta denak maila berean tratatzen ditu. Horrela, irakasleak neurtu ahal du ikasle bakoitzak zein etekin ateratu ahal izan dion bere proposamen didaktikoari. Ikasle batek ez badu edalontzia bete, edo ez badu besteen neurri berean bete, errua ikaslearena da, edo hari laguntzen asmatu ez duen familiarena.



Jakina, hori dena faltsua da. Bada mende bat Psikologiak lagundu digu- netik ulertzen alderantziz dela, ez dire- la edalontzi hutsak, umeek jakin bada- kitela, eta gauza asko gainera, baina ez dakigu zer. Hortaz, bihurgunearen kontrako bilakaera gertatzen da, jaiot- zen den momentuan, edo are lehenago, izaten da haurren garapenik az- karrena, eta garrantzitsuena ez da zer etorriko den ondoren, lehenago gerta- tu dena alferrik ez galtzea edo xahutzea baizik. Beraz, heziketa prozesuaren le- hen momentuak dira garrantzitsuenak, orduan jartzen baitira ondoren etorriko dena eraikitzeke zoruaren zimentuak, eta ondorioz, hor jarri behar ditugu ira- kasle onenak eta prestatuena lanean, eta soldata altuenak ere haiek jaso be- har dituzte.

Nire hipotesiaren arabera, umeak bere ahalmenen %80 garatua du 6-7 urterekin eskolako gelan sartzen denerako.

Haatik, gaur egun 2-3 urterekin hasten dira eskolan, edo 4 hilabeterekin haur eskolan.

Bai, askotan familiari laguntzeko arrazoia dago horren atzean, eta ez haurren garapena, zoritxarrez. Gai ko- rapilatsua da, lanerako eskubidearekin zerikusia duelako. Gure herrialdeetan uste dugu lanerako eskubidea dela es- kubiderik garrantzitsuena eta ukitu ezin den bakarra. Nire iritziz, tamalga- rria da. Italiako Konstituzioak bere le- hen artikuluan dio lanaren gainean sor- turiko errepublika demokratikoa dela Italia. Horrek esan nahi du lanari aitort- zen zaiola gure herritartasunaren mai- larik gorena. Horretaz eztabaidatu be- harko genukeela uste dut. Adibidez, haur bat jaiotzen denean ia inoiz ez da aldatzen gurasoen langile egoera; in- guruko beste guztia egokitzen da hau- rren presentzia lagungarriagoa egite- arren, baina gurasoek ez diote langile izateari uzten. Alderantziz beharko lu- keela uste dut, haurren presentziak izan beharko luke ardatz nagusia eta al- datu beharko luke langileen egoera.

Italian nahiko garatuta daude zen-



bait eskubide: emakumeek soldata osoa jasotzen dute lehen sei hilabete- tako amatasun bajaran, eta aukera dute beste sei hilabete luzatzeko, soldata muriztuarekin baina lanpostua gor- detzeko bermearekin. Eta hala ere, gu- txiegi dela uste dut. Beharko genuke haur bakoitzeko urtebete amarentzat, eta ama bakoitzeko urtebete haurra- rentzat, biek elkar goza ahal dezaten. Jaiotza tasaren jaitsiera horrekin lotuta dago. Hala balitz, ez genuke haur zer- bitzuen horren behar goiztiarrik izan- go. Gaur egun haur eskolak 12 orduz egoten dira zabalik gurasoek hala es- katzen dutelako, ez haurren beharra delako.

3 eta 6 urte arteko haurrek bereziki kezkatzen zaituzte. Zergatik adin tarte horretan?

Zerikusia du derrigorrezko hez- kuntzaren hasierako adinarekin. 6 ur- terekin hasten direnean kezkek sortzen dira. Italian asko eztabaidatu dugu hau- rrak 5 urte dituenan egin beharrekoari buruz. Batzuek proposatzen dute der- rigorrezko hezkuntzaren hasiera adin horretara aurreratzea, lehen hezkun- tzari aurre egiteko hobeto prestatuta egon daitezen haurrak. Ni beti egon naiz horren kontra, horrek ekartzen duelako umea urtebetez Haur Hez- kuntzatik ateratzea eta Lehen Hezkun- tzan jartzea, idatzi eta irakurtzen ikasi

aurreko prestakuntza jasotzeko.

Italiako Haur Hezkuntza baina, na- zioarteko hainbat azterketaren arabe- ra, munduko onenetakoa da. Aldiz, gu- re Lehen Hezkuntzak, 60-70eko ha- markadetan maila altukoa zenak, erdi- purdiko maila du gaur egun, eta Biga- rren Hezkuntzan hirugarren munduko herrialdeen pare gaude PISAko ranki- netan. Hortaz, akatsa iruditzen zait Le- hen Hezkuntza lehenestea Haur Hez- kuntzaren aurretik, azken hori baita on- doen funtzionatzen duena. Eta umea- rentzat esperientziarik aberasgarriena, intentsoena Haur Hezkuntzakoa da. Hortaz, ez dut begi onez ikusten Lehen ezkuntzaren hasiera 5 urtera aurrera- tzea. Ez da kasualitatea PISAko ranki- nen buruan dauden herrialdeetan (Fin- landia, Suedia, Norvegia...) haurrak 7 urterekin hastea Lehen Hezkuntzan. Horrek adierazten du garrantzitsuena ez dela adina aurreratzea, proposame- naren kalitatea baizik.

Haurrek beren bizipenak eskolan partekatu behar dituztela aldarrikatzen duzu.

Ez da nik asmatutako ideia. Jakina denez, Celestin Freinet pedagogoak bi mundu gerren artean herrialde moder- noetako pedagogia berritzeko hainbat proposamen egin zituen eta horietako bat testu librea zen. Freineten testu li- break zera esaten die haurrei: eskolatik

“Guztientzat izatea nahi badugu, haurrei entzun egiten dien eskola bat sortu behar dugu”

“Gutako bakoitza bikaina da eremu batean. Heziketaren zeregina da eremu hori aurkitzea”

kanpo zaudetenean, zuen etxean edo zuen hautazko jardueretan, zuentzat garrantzitsua den zerbait gertatzen bazaizue, aurkikuntzaren bat egiten baduzue edo zuen ikaskideekin partekatzea merezi duela uste duzuen zerbait interesgarria ezagutzen baduzue, testu bat idatz ezazue horri buruz eta eskolara eraman, denon artean irakurri eta eztabaidatzeko. Proposamen horren muinean honako ideia hau dago: eskolak beharrezkoak ditu haurren ekarpenak.

Horrek errotiko aldaketa ekartzen du orain arte ezagutu dugun eskola ereduan.

Nik ikasle gisa ezagutu nuen eskola gutxi batzuentzako eskola zen. Nirekin 6 urterekin hasi ziren gehienak bidean galdu ziren. Batzuek Lehen Hezkuntza amaitu aurretik utzi zuten eskola, eta amaitu zutenetik gehienek Lanbide Heziketara jo zuten 10-11 urterekin. Hortaz, hiruzpalau ikasle bakarrik jarraitu genuen Bigarren Hezkuntzan. Oinarizko eskola etxean, familiaren bidez jasotako haurrak ziren, etxean transmititu zieten irakurtzen eta idazten jakiteak duen garrantzia, liburuak zituzten etxean eta helduek irakurri egiten zuten, seme-alabei ohean irakurtzeko ohitura zuten... Antzerkita eta kontzertuetara joateko edota bidaiatzeko ohitura zuten familiak ziren. Oinarizko irakaskuntza hori osatzea eta aberastea eskatzen zioten eskolari, ikasketekin jarraitzen zutenek etorkizunean zeregin garrantzitsuak bete beharko zituztelakoan arlo ekonomiko, politiko edota kulturalen.

Gaur egun haur guztiak hasten dira eskolan eta gehienek amaitzen dute heziketa prozesua. Horrek dena aldatzen du. Baina eskolako esperientzia nabarmen aldatu den bitartean, proposamena ez da horrenbeste aldatu. Eskolak gutxi batzuentzako izaten jarraitzen du, baina denei eskaintzen zaie. Horrek frustrazioa sortzen du, gehienek ez baitute jasotako mezua ulertzen. Oraindik uste dugulako ikasleek oinarri kultural bat izan behar dutela, eta gaur egun hori ez da egia. Libururik ez



da-
goen
eta helduek inoiz irakurtzen eta idazten ez duten familietakoak dira gaur egun eskolara joaten diren haur gehienak. Orduan, nola izan liteke eskola bat guztientzako?

Haurren parte-hartzea bultzatzea proposatzen duzu.

Ez dago beste biderik. Guztientzako eskola bat nahi badugu, haurrei ezer proposatu ordez haurrei entzun egiten dien eskola bat egin behar dugu. Haurrak hartzen dituen eskola bat izan behar du, haurrek duten historia, kultura, ezagutza, bizipenak hartzeko prest egon behar duen eskola. Haurra nintzelarik nire maisuak esaten zuen ikasleen poltsikoek hutsik egon behar zutelako, poltsikotik gauzak ateraz gero ikasleen bizitza ateratzen zelako haiekin batera. Kanpoko bizitza modu biolentoan sartzen zen ikasgelan, eta irakasleak ezin zuen hori jasan. Berak bere proposamena egin behar zuelako, eta guk kanpotik eraman genezakeen guztia traba bat zen.

Baina horrela izan beharko luke. Haurrak eskola kanpotik ekarritako ekarpenak mahai gainean jarri eta ikasle guztien artean landuz osatzen da benetazko heziketa programa. Eskola ez da ezezagun dugunetik ezagun dugunera pasatzeko bidea jada, dagoeneko ez da oinarritzen etengabe gauza berriak irakasteko gaitasunarengatik irakasleak ikasleengan lilura eragiteko jarreran. Alderantzizkoa da bidea: ezagutzen dugunaren gainean lan egiten dugu, bertan sakontzeko eta kontrastatzeko. Haurrek jarrera protagonista harturik ezagutzak lantzeko eta gartzeko aukera izatea da garrantzitsuena.

Hurrek eskolatik kanpoko esperientzietan oinarrituriko ekarpenak egin ahal izateko, denbora libre behar dute. Etxerako lanak murriztearen aldekoa zara, ildo horretan.

Urrats bat atzera egitea beharrezkoa da. Gurasoek utzi beharko liokete etengabe jostailuak erosteari eta seme-alaben izenak ikastaro guztietan emateari, eta eskolak uko egin beharko lioke etxerako lanak agintzeari. Arratsaldeko denbora ez da eskolarena, familiarena baizik.

Utzidazu anekdota bat kontatzen. Erromako Haurren Kontseiluak gutun bat idatzi zien andereñoi, oporraldietan eta asteburuetan etxerako lanik ez emateko eskatzeko. Gutuna idazten amaitu zutenean, aholku bat eman nien hurrei: etxeko lanen ordez zer-bait proposatzea andereñoi, bestela emango zuen ez zutela ezer egin nahi. Ondo hartu zuten nire iradokizuna, eta hainbat proposamen aipatu zituzten: bisitak egitea, argazkiak ateratzea... Lehenengoa ordea, liburuak irakurtzea izan zen. Segidan haur batek besoa altxatu zuen: "baina irakurri bakarrik". Harritu ninduen, hori baita eskolaren aurka egin daitekeen proposamen gogorrenetarikoa. Liburu bat irakurtzea, besterik gabe, ez zaio eskolari batere interesatzen.

Eta ikasleari interesatzen al zaio eskola? Nola egin daiteke eskola interesgarri?

Ikasleen eta eskolaren arteko harremana erabat aldatu da. Garai batean ikasketen tituluak lana ematen zizun, baina gaur egun ez. Hortaz, eskola ez bazaie interesgarria egiten ez da ulertzen zergatik jarraitu behar duten ikasten.

Duela urte batzuk unibertsitaterako orientatzaileen kongresu batean parte hartu nuen eta aurkeztu nuen ideia izan zen orientazio lana haurrak 3 urte dituztenean egin behar dela.

Lehen aipatutako eskola eredura itzuliz, hurrei entzun egiten dien eskolak aniztasuna onartzen du, eta adierazpen sorta zabalagoa eskaintzen dio haurrari: irakurri eta idazteaz gain,



abestu, eskulanak egin... Gai honetan bi ideia sartzen dira jokoan. Batetik, gutako bakoitza bikaina da eremu batean, eta heziketaren zeregina da eremu hori aurkitzea eta ahalik eta gehien gartztea. Aurkituz gero, eremu horretan indar guztiak jartzeko prest egongo da haur edo gazte hori, hori delako gustuko duena, eta horrela lortuko du bere eremuan onena izatea. Plazeraren dimentsioa berreskuratzeko modu bat ere bada.

Bigarren ideia zera da: onenentzat

beti dago lana. Gazteen orientazioa merkatuaren eremutik atera eta pertsonen esku utzi beharra dago. Alegia, munduak zer behar duen galdetu beharrean, pertsonak zer behar duen jakin beharko genuke. Munduak edo merkatuak ingeniariak behar dituela esaten badugu, bestelako bokazioren bat duten askok hura utzi eta ingeniari-tza ikasteari ekingo diote. Baina ingeniari kaskarrak izango dira eta ez dute lanik aurkituko. Eta triste biziko dira.



zure ziztada behar dugu

Hedabideen aldaketa sakonari indartsu heltzeko, egoera ekonomiko zailari erantzuteko eta BERRIA proiektuaren geroa ziurtatzeko, BERRIAzaleon komunitatea indartu nahi dugu. Erleak bezala, elkarlanean, gai garelako.

Izan zaitez

berrialaguna

Informazio eguneratua
eta euskarri gehiago:
www.berria.info/berrialaguna

berria^{info}

Honako ekarpen hau egin nahi diot
BERRIA HEDABIDEEN FUNDAZIOARI,
G71006795 IFK duena:
Adierazi X batez zure aukera

- | | |
|--|---------------------------------------|
| <input type="checkbox"/> Urtean 100 € | <input type="checkbox"/> Urtean 200 € |
| Aldi batean <input type="checkbox"/> | Aldi batean <input type="checkbox"/> |
| Lau zatitan <input type="checkbox"/> | Lau zatitan <input type="checkbox"/> |
| <input type="checkbox"/> Urtean beste kopuru bat: <input type="text"/> € | |
| Aldi batean <input type="checkbox"/> | |
| Lau zatitan <input type="checkbox"/> | |
| 100 eurotik beherako kopuruetan
ordainketa aldi batean egingo da | |
| <input type="checkbox"/> Hilean 10 € | |

Sinadura

Izen-abizenak:

Helbidea:

PK:

Herria:

Kontu zenbakia:

Tel.:

NA:

Posta elektronikoa:

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babesteko, betarik jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak BERRIA HEDABIDEEN FUNDAZIOAREN fitxategi automatizatu batera pasatuko direla. Zure esku dago ikusteko, zuzentzeko, ezertzatzeko eta kontra egiteko eskubideak erabiltzea. Hala egin nahi izanez gero, idatzi helbide honetara: BERRIA HEDABIDEEN FUNDAZIOA, Irtze Monastegia 45, 13. 31011 Iruñea.

berrialaguna izan nahi baduzu,
bete datuak eta helarazi:

- www.berria.info/berrialaguna
- **Postaz:** BERRIA, Martin Ugalde kultur parkea, z/g. 20140 - Andoain
- **Posta elektronikoz:** laguna@berria.info
- **Telefonoz:** 943-30 43 45

PARTAIDETZA:


gurekin bada, izango da (II)



Marije APOKA,
Gotzon QUINTANA eta
Bea UGARTE

2. IBILBIDE DIDAKTIKOA

Lehen ere esan dugunez, jarduerak sekuentzia logiko baten arabera daude ordenatuta, berorren bidez ibilbide didaktikoan aurrera egiteko. Hiru modulu desberdin dira, eta, horietako bakoitzean, parte hartzeko entrenamendu-jarduerak (E), lan emozionala (LE) lantzeko jarduerak eta, azkenik, proiektu parte-hartzaile bat (PP) abian jartzeko jarduerak proposatzen dira. Ondoren, grafikoki adierazita duzue hori guztia, ibilbide horren prozesu-izaera azpimarratuz, betiere.












	I. modulua Badakit parte hartzen: ezaguera	II. modulua Parte har dezaket: ahalduntzea	III. modulua Parte hartu nahi dut: konpromisoa
Entrenamendua (E)	●	●	●
Lan emozionala (LE)	▲	▲	▲
Proiektu parte-hartzailea (PP)	■	■	■

IBILBIDEAREN HELBURUAK

1. Unitate didaktiko hau DBHko curriculumaren testuinguruan kokatzea, oinarrizko gaitasunen garapenerako zati den neurrian.
2. Harremanez eta taldeaz gozatzeko giro egokia sortzea, errespetua eta umorea hartuta abiapuntutzat.
3. Ikasleen esku-hartzea sustatzea, ikasteko baldintzak eta ikasgelan, ikastetxean eta inguruan dituen harremanak hobetzeko.
4. Parte-hartzearen bidez, taldeko proiektu bateko faseak antolatzea eta garatzea, lankidetzak eraginkorrago egiten gaituela eta elkartasun handiagoz jokatzeko irakasten digula kontuan hartuta.
5. Neska-mutilen interesek eta beharrek inguru hurbilean garapen-aukera berak eta tratua izan ditzaten saiatzeko, eta horiek defendatzeko, aldarrikatzeko eta praktikatzeko konpromisoa hartzea, egunerokotasunetik eta guk esku hartzen dugun tokitik.
6. Parte hartzeko benetako aukerak eta jarduera eta harremanetarako esparru berriak aurkitzeko, ingurune seguruak eta azterketarako eta iritziak emateko uneak eskaintzea, araua, errutina, pasibotasuna edota inposizioa kritikatzeko bideak zabalduz.
7. Curriculum-arloetan lankidetzak txertatzea.


Ebaluazio-irizpideak	Lorpen-adierazleak
<ul style="list-style-type: none"> - Curriculumean duen eragina. - Lankidetzak irakasle taldean. - Esku hartzen duten arloak. - Segurtasun-sentimendua taldean (irakasleak edota ikasgela). - Prestakuntza/berrikuntza hartutako konpromisoak. - Beste arlo batzuetara hedatutako aldaketa metodologikoak. - Errespetua eta umorea harremanetan. - Adostasuna erabakiak hartzerakoan. - Hezkuntzako beste eragile batzuei irekitzea. - Genero-azterketa. 	<ul style="list-style-type: none"> - Sekuentzia didaktikoa modu koordinatu batean gauzatu ahal izateko, irakasle talde bat osatu da. - Proiektuan parte hartzeko proposamenaren helburuak, igurikimenak eta gako metodologikoak partekatu eta negoziatu dira (bai irakasleen koordinazio-taldean eta bai ikasgelan). - Interesa eta motibazioa indartu egin dira, pasibotasunetik eta inhibiziotik inplikazioa eta parte-hartzera igarotzeko (bai irakasleen artean eta bai ikasleen artean). - Lankidetzako dinamiketako eta egituretako elementurik garrantzitsuenak landu dira, eta prozesuaren ondorioak atera dira. - Komunikatzeko eta parte hartzeko gune bihurtu da ikasgela, eta ikastetxeko bizikidetzak arauen ezagutzari, lankidetzari eta aplikazioari ekarpenak egin zaizkio bertatik. - Kideen arteko ezaguera eta konfiantza indartu egin dira (bai irakasleen artean eta bai ikasleen artean). - Jarduerak garatzerakoan, kontuan hartu dira genero-analisiak eskaintzen dizkigun jarraibideak. - Talde batek ondo lan egin dezan, adostutako arauak izan behar dituela ikusi da (bai irakasleen artean eta bai ikasleen artean). - Erabakiak hartzeko prozesuetan, ados jartzeko ahalegina egin da (bai irakasleen artean eta bai ikasleen artean). - Guztien protagonismo orekatuaren alde egin da (bai irakasleen artean eta bai ikasleen artean). - Jarrera eta jokabide eraikitzaileak, egokiak eta erabilgarriak indartu dira (bai irakasleen artean eta bai ikasleen artean). - Zereginen eta arduren banaketa orekatua izan da (bai irakasleen artean eta bai ikasleen artean). - Isilpekotasuna errespetatu egin da, batez ere ikasgelako lan emozionalean. - Ikasgelan jardueren garapenaz arduratu behar zuen irakasle bakoitza seguru senti dadin, kontu handia izan du taldeak, horretarako beharrezkoa zuen informazioa eta laguntza emanez. - Ikasgelan taldea osatzeko eta lankidetzan aritzeko irizpideak definitu egin dira aurrez, eta aniztasuna balioetsi da. - Sekuentzia didaktikoa arlo batean baino gehiagotan gauzatu da. - Egindako lanak eragina izan du ikastetxean, prestakuntzaren eta hezkuntza-berrikuntzaren esparruan landu beharreko gaiak hautematerakoan. - Jarduera batzuek aukera eman dute ikasgelatik kanpoko hezkuntza-eragileekin komunikatzeko (familiarrekin, GKEekin, auzoarekin...). - Sekuentzia didaktikoak curriculumean zer leku beteko duen zehaztu da.

Ibilbideko jardueren laburpen-koadroa

Modulua		Jarduerak	Tresnak eta baliabideak
I. modulua BADAKIT PARTE HARTZEN: EZAGUERA	Entrenamendua (E) 	Oinarritzkoa I.1 Taldea egiten I.2 Arauak edonon! I.3. Parte-hartze kontzeptua I.4 Inkesta: gure inguru parte-hartzailea I.5 Aginduekin jolasean: inplikazioa, bat ez etortzea, bat etortzea. Sakontzekoa I.6 Talde osasuntsua / talde gaixoa I.7 Taldean arauak proposatzen I.8 Parte hartzeko elementuak I.9 Ikastetxeko parte-hartze egoerari buruzko diagnostikoa: parte hartzen dugu benetan? I.10 Adostasuna bozketarik gabe	Tresnak: I.2 Arauak edonon! I.3. Eta..., zure iritzi, zer da parte hartzea? I.4.1 Inkestarako jarraibideak I.4.2 Gure inguru parte-hartzailea ezagutzeko inkesta I.4.3 Inkesten analisia I.5. Aginduekin jolasean: inplikazioa, bat ez etortzea, bat etortzea. Tresnak: I.7 Taldean arauak proposatzen I.9.1: Eskolako mapa I.9.2: Eskolaren erabilera parte-hartzaileari buruzko gogoeta I.10 Adostasuna bozketarik gabe Baliabideak: I.6.1: Lantaldea I.6.2: Talde osasuntsua eta talde gaixoa hautemateko jarraibideak I.6.3. Taldearen lankidetzeta-egitura vs taldearen egitura lehiakorra I.9: Elkarrizketarako eta behaketarako teknika
	Lan emozionala (LE) Beldurra I 	LE/I.1: Beldur gara?	Tresnak: LE/I.1: Hori beldurra! Baliabideak: LE/i.1: Adimen emozionala
	Proiektu parte-hartzailea I (PP) 	PP/I.1: Egin amets! Gure proiektua	Tresnak: PP/I.1: Proiektu parte-hartzailea Baliabideak: PPI.1: Prozesu parte-hartzaile baterako metodologia
II. modulua PARTE HAR DEZAKET: AHALDUNTZEA	Entrenamendua (E) 	Oinarritzkoa II.1 Lesbofobiari, homofobiari eta transfobiari buruzko azterketa II.2 Zertan da gure autoestimua? II.3 Nork lagundu didate erabakiak hartzen? II.4 Internet: intimitaterako mundua? II.5 Ikasgelako batzarra Sakontzekoa II.6 Mundu hobe baten aldeko manifestua II.7 Nik egin dezaket..., bizi naizelako eta pertsona naizelako II.8 Botere-abusua eta diskriminazioa II.9 Intimitaterako eskubidea II.10 World Cafe foroa	Tresnak: II.2: Zertan da gure autoestimua? II.3: Nork lagundu didate erabakiak hartzen? II.5: Ikasgelako batzarra Tresnak: II.9.1: Kasuen azterketa II.9.2: Estilo asertiboak Baliabideak: II.7: Ahalduntzea II.9: Intimitaterako eskubidea
	Lan emozionala Beldurra II (TE) 	LE/II.1: Beldur berak ditugu?	Tresnak: LE/II.1: Beldurraren horma-irudia Baliabideak: http://www.radialistas.net/clip.php?id=1700036 (beldurrari beldurra)
	Proiektu parte-hartzailea II (PP) 	PP/II.1: Zer aukera ditu gure ideiak?	Tresnak: PP/II.1.1 PP/II.1.2
III. modulua PARTE HARTU NAHI DUT: KONPROMISOA	Entrenamendua (E) 	Oinarritzkoa III.1: Begiradak elkarri III.2: Labezomorro bat eta ni: zer-nolako harremanak izan ditzakegu? III.3: Zer behar dut taldearengandik? III.4: Barre-terapia III.5: Taldeko ekoizpena: kalidozikloa Sakontzekoa III.6: Gustatzen zait eta ez zait gustatzen niri begiratzea III.7: Sarrera mugatua? III.8: Mendekoa eta independentea III.9: Nik eman..., nik eskatu III.10: Bidezkoa dena eta ez dena: organoak ematea	Tresnak: III.2: Bioaniztasuna III.3: Zer behar dut taldearengandik? Baliabideak: III.3: Talderako musika III.5: Kalidozikloen txantiloak Tresnak: III.7: Stop, sarrera mugatua! III.10: Bidezkoa dena eta ez dena
	Lan emozionala Beldurra II (TE) 	LE/III.1: Filmetarako moduko gidoia LE/III.2: Beldurrari abestuko diogu	Tresnak: LE/III.1: Filmetarako moduko gidoia LE/III.2: Beldurraren inguruko abestiak
	Proiektu parte-hartzailea III (PP) 	PP/III.1: Ametsetik errealitatera	Tresnak: PP/III.1: Proiektu parte-hartzailea PP/III.2: Ametsen saskia PP/III.3: Nondik hasiko gara? PP/III.4: Nola eta norekin egingo dugu? PP/III.5: Zer moduz joan da gure proiektua?

3. I. MODULUA

PARTAIDETZA: gurekin bada, izango da



I. modulua

BADAKIT PARTE HARTZEN: EZAGUERA

HELBURUAK

- Proiektu batean parte hartzeko oinarrizko alderdiak partekatzea eta negoziatzea.
- Talde bateko kide izatea balioestea eta horretaz gozatzea.
- Bizikidetzara-arauak lantzeko konpromisoa hartzea eta autoerregulazioa balioestea.
- Ikasgelako, ikastetxeko eta inguruko parte-hartzeari buruzko diagnostiko bat egitea eta aztertzea, sexu- eta genero-aldagaiak kontuan hartuta.
- Genero-azterketa kontuan izatea, proiektua garatzeko funtsezko eta esangura handiko irizpidea den heinean.
- Erabakiak elkarrizketan eta adostasunean oinarrituta hartzeko ohitura lantzea.
- Beldurraren botere sinboliko bikoitza identifikatzea, alerta egoteko eta defentsarako mekanismo nahiz ekimen berrietarako oztopo izan daitekeela kontuan hartuta.
- Proiektu baten diseinua abiaraztea, berori osatzen duten faseak kontuan hartuta.

OINARRIZKOA

Ebaluazio-irizpideak

- Taldekide sentimendua
- Adostasuna lortzeko erabilitako prozeduren egokitasuna
- Partaidetza aktiboaren ezaugarrien ezagutza
- Taldekideen arteko errespetua
- Taldekideekin konpromisoa
- Proiektuan genero-azterketa
- Bizikidetzara-arauak lantzeko konpromisoa

Lorpen-adierazleak

- Ikasle bakoitzak ikaskide bakoitzaren zerbait berri ezagutu du.
- Dagoeneko ikaslea taldekoa sentitzen da.
- Umorea beti errespetuz erabili du.
- Orokorrean gustura sentitu da.
- Sentimenduak adierazi ditu.
- Barneraketa-jardueran isiltasuna eta giro erlaxatua errespetatu ditu.
- Jarduerak egiteko emandako jarraibideak beti bete ditu.
- Nork bere buruari jar diezazkiokeen arauak eta inposatutakoak direnak bereizi ditu.
- Ondorio positiboak dituzten arauak identifikatu ditu
- Eztabaidetan askatasuna erantzukizunik gabe erabiltzeak dituen muga nagusiak laburtu ditu.
- Badaki azaltzen zer den partaidetza aktiboa eta haren tipologiak.
- Balioetsi ditu norberaren iritziak eta besteenak.
- Emandako iritzi guztiak laburtu ditu.
- Beharrak eta proposamenak, generoaren, taldearen eta adinaren arabera aztertu ditu.
- Jolasean sormenez parte hartu du, eta moduluan landutako ideien eta sinbolikoa denaren artean antzekotasunak ezarri ditu.
- Adostasunak harremanen hobekuntzan laguntzen duela argudiatu du.

SAKONTZEKOA

Ebaluazio-irizpideak	Lorpen-adierazleak
<ul style="list-style-type: none"> - Taldekide izateak dakarren asebetetzea - Adostasuna lortzeko erabilitako prozeduren egokitasuna - Partaidetza aktiboaren ezaugarrien ezagutza - Taldekideen arteko errespetua - Taldekideekiko konpromisoa - Bizikidetzara-arauek lantzeko konpromisoa - Beldurraren ezaugarrien ezagutza - Proiektu baten osagarrien ezagutza - Erabakitzeko adostasuna 	<ul style="list-style-type: none"> - Umorea beti errespetuz erabili du. - Orokorrean, gustura sentitu da. - Jarduerak egiteko emandako jarraibideak beti bete ditu. - Taldea ondo ibil dadin elementu positiboak edo oztopoak izan daitezkeenak identifikatzen ditu - Taldekideen artean lanaren, rolen eta protagonismoaren banaketa parekidea izan da. - Arauak jartzean parte hartu du - Banakako eskubideak eta taldekoak defendatu eta bultzatu egiten ditu, betebeharrerekin konpromisoa kontuan izanik. - Talde-lanean parte hartu du eta erantzukizunen bat hartu du - "Partaidetza"ren osagaiak ezagutzen ditu eta badaki definitzen - Elkarriketa era egokian egiteko emandako jarraibideak kontuan izan ditu. - Adostasunak harremanen hobekuntzan laguntzen duela argudiatu du. - Beldurraren fase fisiologikoa eta fase psiko-soziala bereizten ditu - Barneraketa-jarduerak irauten duen bitartean isiltasuna eta giro erlaxatua errespetatu ditu - Proiektuaren faseak bereizten ditu - Talde bateko kidea da eta aukeratutako gaiarekin gustura dago - Arauak taldekideekin landu ditu, adostasunean oinarrituta



I. MODULUA. BADAKIT PARTE HARTZEN: EZAGUERA. JARDUEREN KOADROA ENTRENAMENDUA

Jarduerak		Tresnak (ikasleak) Baliabideak (irakasleak)
Oinarritzakoa	I.1 Taldea egiten	
	I.2 Arauak edonon!	Tresnak: I.2 Arauak edonon!
	I.3. Parte-hartze kontzeptua	Tresnak: I.3. Eta..., zure iritziz, zer da parte hartzea?
	I.4 Inkesta: gure inguru parte-hartzailea	Tresnak: I.4.1 Inkestarako jarraibideak I.4.2 Gure inguru parte-hartzailea ezagutzeko inkesta I.4.3 Inkesten analisia
	I.5 Aginduekin jolasean: inplikazioa, bat ez etortzea, bat etortzea.	Tresnak: I.5. Aginduekin jolasean: inplikazioa, bat ez etortzea, bat etortzea.
Sakontzekoa	I.6 Talde osasuntsua / talde gaixoa	Baliabideak: I.6.1: Lantaldea I.6.2: Talde osasuntsua eta talde gaixoa hautemateko jarraibideak I.6.3. Taldearen lankidetzeta-egitura vs taldearen egitura lehiakorra
	I.7 Taldean arauak proposatzen	Tresnak: I.7 Taldean arauak proposatzen
	I.8 Parte hartzeko elementuak	
	I.9 Ikastetxeko parte-hartze egoerari buruzko diagnostikoa: parte hartzen dugu benetan?	Tresnak: I.9.1: Eskolako mapa I.9.2: Eskolaren erabilera parte-hartzaileari buruzko gogoeta Baliabideak: I.9: Elkarrizketarako eta behaketarako teknika
	I.10 Adostasuna bozketarik gabe	Tresnak: I.10 Adostasuna bozketarik gabe

I. MODULUKO JARDUEREN KOADROA: LE/LAN EMOZIONALA: Beldurra I ▲

Jarduerak	Tresnak (ikasleak)
LE/I.1: Beldur gara?	Tresnak: LE/I.1: Hori beldurra!

I. MODULUKO JARDUEREN KOADROA: LE/LAN EMOZIONALA: Beldurra I ■

Jarduerak	Tresnak (ikasleak) Baliabideak (irakasleak)
PP/I.1: Egin amets! Gure proiektua	Tresnak: PP/I.1: Proiektu parte-hartzailea Baliabideak: PPI.1: Prozesu parte-hartzaile baterako metodologia

Zk. I.1	Taldea egiten
Deskribapena	Jolas honen bitartez, elkarrekin jolas egingo dugu, elkar hobeto ezagutzeko eta taldean konfiantza-giroa sortzeko.
Teknika	Konfiantza lantzeko jolasa
Materialak	---
Funtsezko alderdiak	
<ul style="list-style-type: none"> - Hasi baino lehen, jarraibideak ondo ulertu dituztela eta erantzunkidetasunari esker proposatutako erronka lortuko dugula bermatuko dugu: konfiantza eta lan egiteko giro egokia sortuko ditugu. - Ezaguna ez den ezaugarriren bat denon aurrean adieraztea sustatuko dugu, taldeko eragin-trukea eta elkarrekikotasunaren zentzua indartzeko. 	
Garapena	
<ul style="list-style-type: none"> - Biribilean jarrita, taldekide guztiek eskutik helduko diote elkarri. Zenbakiak ipiniko dituzte: 1-2-3-1-2-3-1-2-3-1... Dinamizatzaileak (irakaslea edo ikaskideetako bat izan daitezke) 1 esaten duenean, 1 zenbakia duten guztiek gorputza aurrerantz botako dute, oinak mugitu gabe; 2 zenbakia dutenek eskutik tinko helduko diete, eror edo mugi ez daitezten. Zenbakia aldatzen denean, alderantziz egingo dute. - Pertsonaren bat tokitik mugitzen bada, inork ezagutzen ez duen gauza pertsonal bat kontatuko du (ez dauka kontatu nahi ez duen zerbaitekin beharrik), esate baterako: zergatik jarri zioten izen hori, txikitik beste nonbaiten bizi izan ote zen, atzerrian senideren bat duen, janariaren bat asko gustatzen zaion eta behin eta berriro jaten duen... Norbaitek tokitik ez mugitzea lortzen badu, jolasa amaitu egingo da, eta bizitzan gertatu zaion gertaera barregarri bat kontatzeko eskatuko diogu. - Jarduera amaitzen denean, irakasleak, egoki iruditzen zaizkion heterogeneotasun- edo inklusio-irizpideak kontuan hartuta, aurrez pentsatu dituen oinarrizko lan-taldeak proposatuko ditu. 	

Zk. I.2	Arauk edonon!
Deskribapena	Gure inguruko arau-kopuru handia hauteman nahi dugu, horien beharrari eta onurei buruz gogoeta egiteko eta autoerregulaziorako gaitasuna garatzen joateko
Teknika	<ul style="list-style-type: none"> - Collagea - Elkarlana
Materialak	<ul style="list-style-type: none"> - Paper zuria eta arkatx markatzaileak irudiak egiteko - Collagea egiteko argazkiak eta materialak - 1.2 tresnaren 4 kopia lau pertsonako talde bakoitzeko
Funtsezko alderdiak	
<ul style="list-style-type: none"> - Inguruko hesiak eta babesgarriak (arauak) sinbolikoki hautematea, eta collage batean jasotzea. - Arauen beharra. - Parte-hartzearen eta arauen inguruko elkarrizketaren garrantzia. - Autoerregulazioa da garapen moralaren xedea eta erronka eskolan, diziplinaren eta elkarbizitza positiboaren gakoa dela kontuan hartuta. - Hautatutako jokabideen ondorioen aurreko erantzukizuna. - Errefoztua eta saria arauak errespetatzen direnean. - Ez dugu ahaztu behar debatean adierazitako askatasunaren erabilera arduragabearen muga nagusiak laburtzea. 	
Garapena	
<ul style="list-style-type: none"> - Zoruan, paperean, bi pertsonen irudiak marraztuko ditugu, jarrera desberdinean. - Irudi horien barruko aldean collage bat egingo dugu hesiak, babesgarriak, barandak, segurtasun- eta kontrol-elementuak, debekuak, mugak, hormak, trafikoko seinaleak, arriskuak, etab. erakusten dituzten argazkiekin, hitzekin, marrazkiekin, etab. - Lau pertsonako taldeetan bilduta, pertsona bakoitzak bere fitxa izango duen arren, bi txandatan lan egingo dute, binaka. A zatia beteko dute eta beste biei pasako diete, fitxaren B zatia bete dezaten. Laurak batera, arau horiek betetzen ez ditugunean sortzen diren ondorio negatiboak eta positiboak bilatuko dituzte, eta amaitu gabeko esaldi hau osatuko dute: NAHI DUDANA EGITEA GUSTATUKO LITZAIDAKE, BAINA... - Talde handian, collageak aztertuko ditugu eta "BAINA" guztiak kopia ditugu, elkarbizitzarako beharrezko hesiei eta babesei buruzko ideiak jasotzeko. Askatasunaren erabilera arduragabeak dituen mugak dira. - Ondoren, helburuen funtsezko ideiei eta ebaluazio-adierazleei buruzko ondorioak aterako ditugu. 	

Euskara zinema aretoetara

“Jaurlaritzak diru-laguntza kentzeak zaildu egin du gure eskaintza”

Marian Galarragak 32 urte daramatza ikus-entzunezkoen munduan. Mikel Mendizabalekin batera hasi zen telebistarako eta zinemarako bikoizketak egiten. Galiziarrei hango telebistaren hastapenetan laguntzera joan ziren. Hala, hainbat bidelagunekin batera, gero eta sakonago murgildu zen bikoizketaren itsasoan.



Marian Galarraga, Tinko Euskara Elkarteko bulegoan.

Hastapenetan, ikus-entzunezko lanetan zebiltzan euskaltzaleek galdera hauxe egiten zioten beren buruari: haurrei telebista eta zinema atsegin bazaizkie, zergatik ez dizkiegu euskaraz eskainiko? Eta, filmekin batera, haiek iragartzeko kartelak, iragarriak, eta abar.

Galdakaon sortu zuten Tinko Euskara Elkarteak, eta, geroxeago, Donostian finkatu zen.

Filmberrien bikoizketa-eskubideak eskuratu ondoren, haien itzulpenak egiten hasi ziren. Garai hartan, film katalanak ziren eskuratzeko erraztenak. Eta, halaxe, egin berri ziren filmak aukeratzen eta haiek bikoizten hasi ziren. Lehenengo euskaratu zutena *Alargunen gailurra* izan zen. Huraxe izan zen film bat aldi berean gaztelan eta euskaraz estreinatzen zen le-

hen aldia.

Ordura arte, haurrak zinema-aretoetara eramaten zituzten, filma gaztelan ikusten zuten, eta, horren ondoren, filma euskaraz lantzen zuten ikastolan. Egoera hura hobetu beharra zegoela ikusi zuten, ezin baitzen euskara ikastolen esparrura mugatu soilik; aisialdia eta kalea ere euskaratu beharra zegoen, eta haurrei aukera eskaini behar zitzaion. Gainera, txikitant ohitura hartuz gero, errazagoa izango zen handitzean filmak euskaraz aukeratzeko.

Eskolak, berriz, behin filmak euskaraz ikusten hasi eta gero, haiek lantzeko material pedagogikoa eskatzen hasi ziren. Hala, Durangoko psikologo, pedagogo, sendagile eta abarrek osatutako talde bat material didaktikoak prestatzen hasi zen, eta horretan

jarraitu du gaur arte.

“Eusko Jaurlaritzara jo genuen proiektu harekin. Hasieran, ametsak ez zituztela diruz laguntzen esan ziguten, eta ez zuten babestu. Hala ere, 1993-1994. ikasturtean, euskaraz prestatutako lau film eskaini genizkien ikastetxei, eta 5.000 ikasletik gora joan ziren aretoetara ikustera”. Hasteko, oso erantzun ona jaso zuten. Hurrengo ikasturtean, berriz, 23.000 izan ziren ikusleak; eta, urtez urte, kopurua igotzen joan zen. Iaz, adibidez, ia 100.000 ikasle izan ziren zinema-aretoetan.

Proiektuak aurrera zentzuz egin zezan lau baldintza bete behar zirela uste du Marianek: (1) film ona aukeratu behar zen (dibertigarria, biolentziarik gabea, haurrei sentimenduak piztuko zizkiena, eta abar); (2) areto ko-

2012-2013

ikasturterako zine eskaintza



mertzialak lortu behar ziren filma proiektatzeko; (3) bezeroak izan behar zituzten, hau da, jendeak film horiek ikustera joan behar zuten; eta (4) jendeak horien berri izan zezan, euskarazko filmak promozionatu behar ziren, eta, horretarako, telebistak inplikatu behar zuten. "Hasiera-hasieratik eta prozesu osoan, EITB ez da baxterre inplikatu", dio Galarragak.

Haren hitzetan, film bat bideragarri egiteko, hauxe egiten da: lehenengo, filma areto komertzialetan proiektatzen da; gero, ikastetxei eskaintzen zaie, prezio berezian; eta, azkenik, DVD euskarrian merkaturatzen da.

90eko hamarkadaren amaieran, euskaraz bikoiztutako zinema areto komertzialetara zabaltzeko ideia sustatu zuen Eusko Jaurlaritzak, 100.000 euro baino gehiagoko diru-laguntza emanda. Gerora, 150.000 euro jasotzera ere iritsi zen elkarteak. Duela bi urte berriz, gobernu-aldaketarekin,

75.000 eurora jaitsi zuen laguntza Eusko Jaurlaritzak, hau da, erdira. Azkenik, aurten, diru-laguntza osoa kentzea erabaki du. Ondorioz, 0 euro jasoko dute.

Udalek, aldiz, era baikorra joan jokatzen dute, filma proiektatzen den herrietan beren gain hartzen baitute zinema-aretoaren alokairua.

Egoera berriaren aurrean eta filmak euskaraz ikusteko eskaintzari eutsi nahi diotenez, film bakoitza ikusteko prezioa 1,70 eurotik 2 eurora igo behar izan du Tinko Euskara Elkarteak. ●



Parte hartu, partekatu

Hezitzaileon ekarpenak sustatu nahi ditu *hik hasi*-k.

Zure esperientziaren berri emateko bidali iezazkiguzu ondokoak:

- Testua, bere izenburu eta sarrerarekin, eta azalpen teoriko eta ondorioekin.
- Esperientziaren hiruzpalau argazki (baimenarekin).

aldizkaria@hikhasi.com helbidera bidali

Irakurketa dialogikoak irakasleen hobekuntzan

Paulo Freirek (1921-1997) pentsatzen zuen irakurtzen ikastea ez dela ekintza mekaniko hutsa, testuingururik gabekoa; munduari buruz munduko elkarrizketa irekia izan behar zuela zioen. Freireren ideia horri helduta, ikasteko komunitate bihurtu diren eskolek helduen arteko literatur solasaldiak antolatzen dituzte; horrela, testu literario batean oinarrituta, gizarteari buruz hausnartzen eta eztabaidatzen dute, argudioak ematen dituzte, eta beren esperientziak eta hausnarketa kritikoak adierazten dituzte.



Iruñeko Irakasleen Laguntza Zentroan (ILZ), irakurketa dialogikoaren metodologia interesgarria iruditu zitzaigun, irakasleen hobekuntza garatzeko. Hori dela eta, metodologia horretan oinarritako hobekuntza-ekintza batzuk antolatu genituen, baina aldaketa txiki bat eginez: irakurketarako aukeratutako



Idoia CARRICAS

HHKO IRAKASLEA

IRUÑEKO ILZ HAUR HEZKUNTZAKO AHOULKULARI OHIA

icarrica@educacion.navarra.es

testua, literarioa izan ordez, pedagogikoa izango zen, ekintzaren helburu bat irakasleen lana hobetzea baitzen. Horrela, metodologia horren bitartez, hiru jarduera antolatu genituen irakasleen hobekuntzarako:

- *“Zuzendaritza-jarduerak hobetzea, gogoeta abiapuntu hartuta”*. Jarduera hau bi ikasturtez antolatu zen, eta partaideak zuzendaritza-taldeetako kideak izan ziren. Jarduerak oso balorazio ona izan zuen.

- *“ILZ zentroetako aholkularien prestakuntza”*. Jarduera hori urtebetez antolatu zen, eta parte-hartzaileen taldea heterogeneoa izan zen (Iruñeko ILZko zuzendaria eta bost aholkulari, eta Hezkuntza Departamentuko bi kide). *“Las Cinco mentes del futuro”* liburua irakurri zen, H. Gardner-ena, Paidós argitaletxekoa; eta irakurketatik eta

talde heterogeneo horretatik sortutako hausnarketak eta elkarrizketak oso aberasgarriak izan ziren.

- *“Irakurtzeko eta hausnartzeko ikastaroa”*. Haur Hezkuntzako aholkularitza horrelako biekintza antolatu genituen azkeneko bi ikasturteetan. Irakurritako liburuak hauek izan ziren: *“Elogio a la Educación Lenta”*, J. Domènech-ena, Graó argitaletxekoa, eta *“Educar para Ser”*, R. Wild-ena, Herder argitaletxekoa.

- **Irakurtzeko eta hausnartzeko ikastaroa** halako berrikuntza bat izan da bai aholkularientzat eta bai irakasleentzat. Berrikuntza, hizlaririk ez zegoelako eta partaideok elkarrengandik ikasten genuelako, guztion iritzia eta ahotsa entzunez eta errespetatuz. Hamabostean behin elkartzen ginen, eta, bilkura-egun horretarako, liburuaren kapitulu bat edo bi irakurtzen genituen; irakurketa horren ondorioz, paragrafo bati buruzko hausnarketa egiten genuen, eta bi galdera aurkezten genituen taldean, gero elkarrizketa sortzeko. Ikastaroaren ebaluazioan, metodologia oso argi azaltzen dute partaide baten hitzek: *“Profesionalen arteko elkarrizketa eta gogoeta sakon eta lasaia, horrek aberastu egiten gaituelako”*. Saio bakoitzean aukeratutako paragrafoak eta sortutako galderak aholkularitzaren webgunean zintzilikatzen ziren, bai partaideei eta bai beste irakasle batzuei hausnarketarako eta hobekuntzarako aukera berriak emateko.

Lehenengo ikastaroa 2010-2011 ikasturtean antolatu genuen. Lehenda-

biziko ikastaro horretan, aholkularitzak aukeratu zuen liburua: *“Elogio a la Educación Lenta”*, J. Domènech-ena,



Graó argitaletxekoa, eta hezkuntza mantsoa lortzeko egin behar diren aldaketa metodologikoei buruz hausnarketa egitea zen berorren helburu nagusia. Irakasleen hobekuntzarako modalitatea berria zenez, ausartak izan ziren ikastaroan izena eman zuten irakasleak, hamarren bat guztira. Taldea oso heterogeneoa zen (ereduak, etapak, espezialitateak etab.), eta oso giro aberatsa sortu zen. Alderdi hauek azpimarratu zituen partaideetako batek: *“Ikasgelan egiten dudana lanari buruz gogoeta egiteko aukera, beste profesional batzuekin alderatu ahal izatea, arazoei, gogoetei edota zalantzei buruz hitz egitea...”*.

Ikastaroa bukatzean, Freireri eta eskola demokratikoaren oinarriei jarraituz eta aurreko ikastaroko azken saioan parte-hartzaileak hainbat liburu proposatzera animatu eta gero, hurrengo ikasturterako liburua aukeratu genuen Google docs-en bozketara bat eginez. Horrela, R. Wild-en *“Educar para Ser”*



liburuaren bidez (Herder argitaletxea), irakasleok “eskola eraginkorra”ri buruz hausnartzeko aukera izango genuen. Bigarren ikastaro horretan, aurreko ikasturtean antolatutako ikastaroan baino bi bider lagun gehiagok eman zuten izena. Hori horrela, eztabaidarako talde erosoak izateko eta guztiek ikastaroa egiteko aukera izan zezaten, irakasleak bi taldetan banatu genituen, hizkuntzak, gaztelania eta euskara, kontuan hartuta. Jarduera euskaraz gauzatzeko aukera baikortasunez hartu zen ebaluazioan. Berrito ere, irakasleek oso balioespen ona egin zuten ikastaroaz, eta hausnarketa eta giroa azpimarratu zituzten.



Nafarroan irakurketa dialogikoa egiten duten irakasleetako batzuk.

Zer hobeturik ere badago hasitako bide honetan. Batzuetan, egunerokoak eta elkarrizketak korapilatzen gaitu, eta zail gertatzen da metodologia aurrera eramatea: *“Saio batzuetan, pata ibili gara gure partetik, gutxi prestatuta etorri garelako”*; horrelakoak saihesteko, garrantzitsua da partaide guztien konpromisoa: hausnarketa egitea, eta baikoitzak bere buruarekin, lankideekin, ikasleekin eta errealitatearekin konpromisoa hartzea. Bestalde, denboralizazioa ere zaindu egin behar da.

Datozkigun **garai berri** hauetan, krisia dela-eta hobekuntzarako diru gutxi aurreikusten denez, modalitate hau oso egokia da bai ILZ bidez antolatzeko (2012-2013 ikasturtean berrito antolatu tuko da), bai ikastetxean bertan antolatzeko. Hala ere, ezin dugu ahaztu hobekuntzarako ikastaroak antolatzeko irizpide bakartzat ezin direla hartu irizpide ekonomikoak, beste prestakuntza bat ere behar dugula, eta hori gure eskubidea dela. ●

Bibliografia

- *“Pedagogía del Oprimido”*, P. Freire, S.XXI argitaletxea, 2009
- Utopiadream.info
- <http://www.hikhasi.com/artikulu/811>
- *“La Educación del Siglo XXI: Los Retos del Futuro Inmediato”*, F. Imberón (koord.) Graó argitaletxea, 1999.

Nola joka dezakegu negarrez ari den haur baten aurrean



Alfredo HOYUELOS
EUROPAR DOKTOREA

Horrelaxe hasten da Pere Ginard-ek idatzitako ipuin bat. Egileak berak ilustratutako album hori abiapuntu ona da, landu nahi dudan gaiari ekiteko. Besteak beste, honako kontu honekin du zerikusia, gainera: haur-malkoen hizkuntzaren gramatika alfabetatzeko dugun beharra onartzea, negarrez ari den haurrari modu profesionalean laguntzeko.

Neure buruari galdetzen diot zergatik ez ote ditudan erretratatu negarrez ari diren haurrak, Haur Hezkuntzan la-

nean daramatzadan 20 urteotan. Nekez ohartu naiz haurren negarrak nire malkoekin dudan harreman emozionalaren aurrean jartzen nauela, nire negarraren historia partikularraren aurrean, ispilu bat balitz bezala. Era berean, haurren gaitasunak onartzearekin lotuta dago, baita haurrek negar egiten dutenean ere.

Zentzu horretan, ikuspegi kultural zabal batetik begiratura, laguntza handikoa gertatzen ari zait gai horren gaineko hausnarketa. Ikerketa ugari egin

dira hainbat diziplinatan, esate baterako, psikologian, pediatrian, antropologian, artean, fisiologian, neurologian, soziologian eta filosofian. Aipatutako diziplinarteko hausnarketek haurtzaroko negarraren zentzua (eta gurearena) ulertzen lagun diezagukete, eta profesionalki laguntzeko modua ere eman diezagukete.

Ikerketa horiek oinarri hartuta, hainbat galdera sortu zaizkit: zein da haurtzaroko malkoen hizkuntzaren esanahia? Zer zentzu dute malkoek gi-

Malko mota asko daude.
Badira lodiak direnak, krokodiloarenak bezalakoak.
Badira txikiak, ia ikusezinak.
Badira malko tristeak eta malko alaiak.
Limoi zukua balira bezala erretzen duten malkoak, edo gozokiak bezain gozoak.
Baina guztiak dira gaziak, barruan itsaso txiki bat izango bagenu legez.
Malkoak negar isilean sortzen dira, edo barruko garrasian, guztiok isurtzen ditugu malkoak noizbait, ordea.



za garapenean? Nola interpretatu dira malkoak kulturetan eta historian zehar? Nola azal daiteke gizonak eta emakumeak, neskak eta mutilak, bakarrak eta bereziak izatea beren negar egiteko moduan? Zergatik egiten dute negar horren erraz haur batzuek, eta ez beste batzuek? Nola lagun diezaiokegu haurrari modu egokian, negarrez ari denean? Zer adierazten dute malkoek gure gizatasunaz? Zergatik egiten dugu negar? Zertarako egiten dute negar haurrek? Zergatik eta nola uzten diote haurrek negar egiteari? Zer adierazten eta komunikatzen dute malkoek? Nolako da negararekin dugun harreman emozionala? Galdera asko, eta erantzun gutxi.

Edonola ere, haurrekin lan egiterakoan, uste dut badirela jarrera etiko gisa inola ere ahaztu behar ez ditugun premisa batzuk. Alderdi ezagunak diren arren, modu telegrafikoan bada ere, gogoratzea eta praktikan jartzea komeni da:

- Haurrek ikaskuntzarako ahalmena eta plastikotasuna dute, baita negararekin zerikusia duten esperientzia kognitiboetan eta emozionaletan ere.

- Haurrak bakarrak dira, eta ezin dira konparatu. Garrantzitsua da hainbat familiari alderdi hori azpimarratzea, ba-

tez ere, “Nireak bakarrik egiten du negar” eta horrelakoak esaten direnean.

- Eskolak ahalik eta konfiantzazko giro lasaiana sortu behar du, segurtasuna emateko: zenbat eta gehiago, hobe.

- Aurreiritziak saihestu egin behar dira beti, “Ikusiko duzu nola negar egiten duen” eta horrelakoak, adibidez.

- Negarrak beti ditu arrazoiak. Sekula ez da apeta edo manipulazioa. Pertsonek ez dut batere gogoko behiorismoa.

- Malkoak ere adierazpen modu bat dira, eta “ehun hizkuntzatan” antzeman behar ditugu.

Hala, negarra behar gisa sortzen da, eta eskolan eskubide modura adierazteko era aurkitu behar du beti. Baldintza horretatik abiatuta, hauek dira praktikan hainbat haur-eskolatan probatzen ari garen alderdiak, hots, bilera pedagogikoetan taldean hausnartzen eta berrikusten ari garen jarraibideak:

- Salbuespenak salbuespen —konbultsio-arriskua, esaterako—, ez dugu negarra eten behar inoiz. Haurrak berak bilatu eta aurkitu behar du kontsolatzeko bere era.

- Gure egin beharra, haatik, haurrari bere negarrean eta sentimenduan laguntzea da; haurrak baimena ematen digun lekutik, betiere. Haur guztiek ez dute nahi besoetan har ditzaten edo bersarka ditzaten. Gogoan dut neska batek irakasleari soilik hatz erakuslearekin uki zezan uzten ziola, lurrean negarrez ari zen bitartean.

- Enpatikoki laguntzeak —askotan isiltasunaren arteaz— esan nahi du ez dugula negarra isilarazi edo mugatu behar, kontsolatzeko edo lehenbailehen amai dadin, ez dugula ezikusiarrena egin behar. Malkoak ez etenez gero, haurrak aukera gehiago ditu erabat onartua, ulertua eta bere nortasunean babestua izateko. Horrela, elkarren arteko ulermenaren kalitatea handitu egingo da. Malko bakar bati ere ez zaio eutsi behar, bakar batek ere ez du geratu behar zorretan. Malko emozionalek (basalek eta erreflexuek ez bezala) plasma baino lau aldiz potasio gehiago dute, odolean dugun manganeso ko-

**Salbuespenak salbuespen
—konbultsio-arriskua,
esaterako—,
ez dugu negarra
eten behar
inoiz. Haurrak
berak bilatu eta
aurkitu behar du
kontsolatzeko bere era.**



purua 30 aldiz gainditzen dute, eta gehiegizko prolaktina dute, gainera. Gai horien gehiegizko kontzentrazioek toxikotasuna sor dezakete, eta gorputza gaixoaraz dezakete. Jendearentzat kaltegarriak izan daitezkeen gai horiek deuseztatzeke modu bat dira malkoak.

- Era berean, negarrez ari den haur batekin egoteak ardua eta emozionalki prestegotea eskatzen ditu, eta ez beste alde batera begiratzea. Garrantzitsua da haur horrekin buru-belarri egoten ikastea, “doluminak ematea”.

- Malko motak hamaseiren bat izan daitezke: tristurak sortutakoak, edo minak, galerak edo etsipenak; lasaigarriak, pozezkoak, asaldurak eragindakoak, edo amorruek, edo abaildurak; tentsio-deskargak, negar zeremoniatseuei dagozkienak, enpatiak eragindakoak, edo frustrazioak, beldurrak, haserreak, sumindurak edo erneguak. Orain, gure erronka negararen gramatikian, tonalitatean eta hizkuntzan alfabetatzea da, Pere Ginard-en ipuinean bezala. Horrela, haren forma bereizi ahal izango dugu, modu berezi batean laguntzen jakingo dugu, eta zergatik lehertzen den eta zergatik baretzen den jakingo dugu, haur bakoitzak duen berezitasunaren ikuspuntutik, betiere.

Ezagutza-lan horretan, oso lagungarria gertatu zitzaidan historian zehar hainbat artistak malkoen mundua estetikoki nola irudikatu duen ikustea. Bereziki iradokitzailea iruditzen zait Roy Lichtenstein-en emakumeen se-

Negarrez ari den haur batekin egoteak ardura eta emozionalki prest egotea eskatzen du, eta ez beste alde batera begiratzea. Garrantzitsua da haur horrekin buru-belarri egoten ikastea, “doluminak ematea”.



ria, edo Pablo Picassok *Gernika* lana margotu aurretik negarrez ari ziren emakumez egin zituen azterlanak; Rafael Albertik, berriz, poetikoki interpretatu zituen Picassoren lanak: “Harrizko negarra egin daiteke. / Harrizko tantak bezalako malkoak. / Begietatik erortzen diren hortzak / begiek harrizko hortzeria / isuriko balute bezala. / Minaren negarrik handiena / harrizko tantazarrak jaurtiz, / hari-minezko hortzaginak”.

- *Barrua busteko lantua* esaten diegu inoiz biografia pertsonalean jaurtitzeko izan ditzakegun min edo malkoei. Ikuspuntu objektibotik garrantzirik gabekoak ziruditen “erorikoak” edo “istripu txikiak” ikusi izan ditut askotan; baina, haurren ikuspuntutik, negarra lehertzeko aukera izan dira. Lantu horrek gure arreta eta errespetua merezi du, zenbaitetan zinema-aretoetan edo telebistaren aurrean film negar-eragile bati begira guk negar egiten dugun bezala, jakin badakigun arren aktoreei antzetzeko ordaindu egin dietela.

- Txupeteak aipamen berezia merezi du. Txupetea (eta haur-negarra murritzeko beste era batzuk) haurren negar egiteko eskubideari traizio egiten dion tapoi gisa sortu zen historikoki. Ez zaizkigu txupeteak gustatzen, baina oso bortitza iruditzen zaigu haurrari txupetea kentzea, etxetik baldin badakar. Txupetearen erabilera erres-

petatzea erabaki dugu, baina ez dugu sustatuko, haurrari erortzen zaion bakoitzean edo haurrak botatzen duen bakoitzean berriro emanez.

- Ildo berari jarraituz, garrantzitsua da gisa honetako hitz edo esaldiak alboratzea: “*Ez da negar egin bebar; ez da hainbesterako; ez negar gebiago egin; nabikoa da*” edo ohikoa den “*shb*” (zenbaitetan haurrari isil dadin adierazteko egiten diogun soinu onomatopeikoa). Aurreko batean, hala esan zion ama batek semeari eskola batean: “*Ez negar egin, oso itsusia jartzen zara-eta*”. Zentzu horretan, familiekin ere lan sakona egiten saiatzen ari gara. Ez da gai erraza. Lehen urratsak egiten ari gara.

Negarraren gaia pertsonalki eta profesionalki barrua mugiarazten dion gaia da. Une honetan bertan, dokumentatzen eta behatzen ikasten ari naiz, batez ere. Dokumentazio horretatik abiatuta, eszena eredugarri bat kontatu nahi dut amaitzeko, altxor gisa: haurrari negarrean presentzia egoki batez laguntzen diona, maitasunez eta errespetuz.

Testuingurua Iruñeko La Milagrosa udal haur-eskola da, bularreko haurren gela. Anne (10 hilabete) eta Vero (hezitzailea) elkartu dira, 2010eko irailean. Bost egun dira Anne eskola horretan hasi zela. Talde hezitzaileak zenbait bileratan pedagogikoki aztertu zuen neskatxak helduekin zuen harreman mota, hainbat irudi dokumentalen bidez. Ikuspuntuaren truke osagarri eta berezi horretan, Annerentzat zentroan egokia izango zen esku-hartze profesionala antolatuta genuen.

Lehen aldia da Annek negarrez ari dela bezitzaileak kontaktu bidez lasai dezan onartu duena. Neskatxak egonezina adierazi du, lantu al-dizkako baina tematiaz. Verok besoen artean inguratu du Anneren gorputza, eta patxadaz hartu du arnasa, prozesuak iraun duen bitartean.

Anne asaldatuta mugitu da, eta Verok haren begirada bilatu du orain. Etenik gabe hartzen du arnasa, eta, bezkuntza-esparruan duen

aparteko gaitasuna eta prestutasun emozionala erakutsiz, itxaron egin du. Intentsitate handiko une horretan, bastear den harremanaren zain dago, gorputzen arteko egokitzapena eta isiltasunaren elokuentzia oinarri hartuta.

Presentzia estetiko biburtu da: butsuneak, bi gorputzen eta ukipenaren eraldaketaren butsak eta beteak, azalaren berotasunaren bidez barreiatuak, hamaika ñabarduratan sakabanatzen dira, batasuna, fusioa, egin arte. Elkarrekin eta elkarrentzat egindako ekimena da. Mugimenduen dantza sentikor bat da, kanpotik ia ikusezinak eta nabariezina diren mugimenduen dantza bat.

Denborarik gabeko denborak eskuzabaltasuna eta konfiantzaren oinarriak eraikitzea ahalbidetuko du, eta esnalditik loaldira doan tarte se-gurtasunez igarotzen lagunduko du.

Bibliografía

GINARD, P.: *Libro de las lágrimas*, Anaya, Madril, 2002.

HOYUELOS, A.: “Acompañar el llanto infantil. Amor y respeto”, in *Infancia*, 119 (2010eko urtarrila-otsaila), 28-29.

“Acompañar el llanto infantil con amor y respeto”, in *Amor y educación. X Jornadas de Innovación en la Etapa de Educación Infantil*, Institut de Ciències de l'Educació, Bartzelona 2011, 163-168.

KOESTLER, A.: *En busca de la utopía*, Kairós, Bartzelona, 1983.

KOTTLER, JEFFREY A.: *El Lenguaje de las Lágrimas*, Paidós, Bartzelona, 1997.

LUTZ, Tom: *El llanto. Historia cultural de las lágrimas*, Taurus, Madril, 2001.

PLESSNER, H.: *La risa y el llanto*, Trotta, Madril, 2007.

SOLTER, ALETHA J.: *Llantos y rabietas*, Medici, Bartzelona, 2002.

WILD, R.: *Libertad y límites. Amor y respeto*, Herder, Bartzelona, 2006.

argitalpenak



Katutxo eta baloia

Joel Franz Rosell/Constanze Kitzing
PAMIELA

Etxe berrira iritsi eta auzokide berriak ditu Katutxok. Oraindik ezin izan du gauditut lagunak egiteko herabetasuna. Galdutako baloi bat halabeharrez topatu duenean, bakarrik jolastu ahal izango duela uste du, baina amak aurretik baloiaren jabea bilatzeko esan dio. Horrela ezagutu ditu Ahateme, Katagorri, Untxi eta Triku. Albuma, gaur egungo hiri giroko alegia da. •



Gure hiztegi magikoa

Pello Añorga/ Jokin Mitxelena
AIZKORRI

Igor saltoka hasi da ohe gainean: don, don, don! salto egiteaz gain, zera agindu dit mantapetik: aitatxo, kontatu ipuin bat. Eta nik gaur ez dudanez gogorik ipuinik kontatzeko, erantzun diot ezetz: gaur ipuinik ez, Igor, gaur hiztegi magikoa erakutsiko dizut. Eta nik hiztegi magikoa erakutsi diot, dena hitzez betea, entzuteko diren hitz magikoak. 5 urtetik aurrera. •



Iban Aldenurikoa (II)

Txabi Arnal/ Patxi Gallego
EREIN

Iban eta Errion-Thaleko bere lagunak inbaditzaileen aurka guztia emateko prestatzen diren bitartean, gizon prestu bat, gatibualdi luzetik ihes egin duena eta, beste bat, traizio beltzena ehotzeko azpilanean dabilena. Horiek guztiek hartuko dute parte Aldenuriren etorkizunerako erabakigarria izango den morghuken kontrako borrokan. •



Inuiten mila zuriak

Isabel Minhos/ Madalena Matoso
TXALAPARTA

Batzuetan, urrutira bidaiatzeko, aski izaten da keinu txiki bat egitea. Urrutiko leku horretan, haur inuit bat bizi da, eta mundua ikusten lagunduko digu, bere begiez. Eta harritu egingo gaitu: izan ere, mila zuri bereizten dituzte, desberdinak direlako haientzat, guretzat horia eta urdina diren bezain desberdinak. •



Izebak

Arrate Egaña/ Marimar Agirre
IBAIZABAL

Denik eta planik aspergarriena edo arruntena, harrigarri suerta daiteke. Jonek ezin zukeen inolaz ere alde aurretik imajinatu izeben etxeko abentura. Edonon ageri dira ezustekoak eta tupustean jauzi egiten dute, gure bizitzari txiribuelta emateko. •



Pobreak gara, eta zer?

Xabier Mendiguren E./Patxi Gallego
ELKAR

Aita eta ama lanik gabe gelditu dira. Hodei txikia ez da egoeraz ohartzen, baina Irati bai, eta kezkatuta dago, etorkizunak zer ekarriko dien. Krisi egoerari buruzko ipuin bat, familien zailtasunak eta haurren beldurrak lantzen dituena. 8 urtetik gorakoentzako ipuina da. •

... nora joango gara?

BURDINBIDEAREN EUSKAL MUSEOA

Lurrin usaineko bidaiak

Hainbat hilabetetako etenaren ostean, joan den uztailaz geroztik antzina bidaiatzen zuten erara, lurrin trenean, bidaiatzeko aukera eskaintzen du berriz ere Azpeitiko Burdinbidearen Museoa. Halaber, Europako tren-bildumarik onenetakoa ikusteko eta Euskal Herriko burdinbidearen historia ezagutzeko aukerak oso erakargarri egiten du bisita museora. Ikasturte honetan, gainera, 'Har ezazu trenak' gida didaktikoa prestatu dute.

Zumarraga eta Zumaia lotzen zituen Urolako trenbidearen geltoki zaharrak hartzen du, gaur egun, Burdinbidearen Euskal Museoa, Azpeitian. Euskal Herriko trenbide sarean esangura berezia du Urolakoak, Gipuzkoan irekitako azken trenbidea izan baitzen, 1926an, baita azkena ixten ere, 1988an. Urteko 300.000 bidaiari inguru garraiatzen hasi zen, eta ibarreko industrietako produktuei irteera emateko erabili zuten, baina galera ekonomikoak ere hasiera-hasieratik ezagutu zituen Urolako trenak, 60ko hamarkadatik larriagotu zirenak.

Burdinbidearen ondare historikokoaren garrantziak oharturik, museo bat eraikitzeko egitasmoari heldu zion Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herri-lan Sailak 1989an. Hiru urte geroago inauguratu zuten museoaren lehen zatia, baina Burdinbidearen Euskal Museoa 1994an ireki zituen ateak.



Gaur egun, Burdinbidearen Euskal Museoaren Fundazioak kudeatzen du eta Maitane Ostolaza da zuzendaria.

Lurrin trenak berriz martxan

Azpeitiko tren geltoki zaharrera gerturatzen den bisitariak, seguruenik ahazturik izango duen lurrin usaina berriz aditzeaz gain, goiza edo arratsalde emateko hainbat osagai aurkituko ditu. Beharbada ikusgarriena, museoak barruko biltegietan gordetzen duen tren-bilduma da, Europako osatuenetakoa baita: lurrunezko tren-makinak, diesel motordunak nahiz elektrikoak; tren automotorrak, eta askotariko bagoiak biltzen ditu. Horrez gain, Euskal

Herriko makina-erremintaren esparruko bildumarik aberatsenetakoa eskaintzen du museoak, Urolako trenbidearen lantegi mekaniko zaharraren bidez. 1925ean inauguratu zen bezalaxe gordetzen da gaur egun instalazioa; bertan dagoen motor elektriko zaharrak 16 makina jartzen ditu martxan, txirrri, uhal eta barra kolektore ugari sistema konplexu baten bidez.

Julian Elorza kaleko eraikin nagusiaren lehen solairuan, XIX. mendearen amaieratik Abiadura Handiko Trenaren sorrera arte tren-langileek erabili izan dituzten uniformeak erakusketa dago ikusgai, eta bigarren solairuan Europako tren geltokietako ordularien



erakusketa, munduko onenetakoa, museoako arduradunen arabera.

Dena den, lurruntrean bidaiatzeko eskaintza bihurtu da Azpeitiko museoak bisitariak erakartzeko duen amu nagusi azken hilabeteetan. Joan den udazkenean zerbitzu hori eskaintzeari utzi zion museoak, baina uztaillaz geroztik museo eta Lasao arteko joan-etorri zoragarria (guztira, 10 kilometro) ehun urtetik gora dituen lurruntrean egiteko aukera dago berriz ere. Herritarren erantzuna aparta izan da, eta bisitari kopurua hirukoiztu egin da udako hilabeteetan. Une honetan, asteburuetan eta jaiegunetan bakarrik ibiltzen da lurruntrena.

Aipatutakoaz gain, bestelako ekitaldiak ere antolatzen ditu museoak. Esaterako, *Trena eta kultura* izeneko zikloa antolatu zuen urrian, eta azaroan *Tren Bidea 2012* argazki lehiaketako lanen erakusketa apailatuko du museoan bertan. Baina ikasturte honetarako museoak prestatu dituen nobedade aipagarrienetako bat haurrentzako *Harezazu trena* gida didaktikoa da. Eskola-bisitetan zein familiarekin egiten diren bisitetan banatuko da doan, eta orientazio bat eskaini nahi die haurrei burdinbidearen historiari eta trenbide-ondarearen garrantziaz. Alabaina, ikas-kuntza aktiboa sustatze aldera, gida didaktiko horrek haurren parte-hartze zuzena eskatzen du.

Aurrera begira, museoak birmoldatzeko asmoa du Fundazioak. Harrera berri zuen abuztuan, eta bilduma beste era batera aurkezteko aukera aztertzen ari da. Halaber, ikerketa lanei bide emateko hitzarmenak sinatu ditu EHUrekin, Deustuko Unibertsitatearekin eta Valentin de Foronda institutuarekin. ●

BURDINBIDEAREN EUSKAL MUSEOA

Burdinbidearen Euskal Museoaren Fundazioak kudeaturiko museo da.
Julian Elorza kalea, 8
20730 Azpeitia
Telefonoa: 943 150677
e-maila: museoa@bemfundazioa.org
www.bemfundazioa.org



MUSEOAREN ORDUTEGIA

Asteartetik ostiralera: Asteburuetan: itxita

10:00 - 13:30 eta 15:00 - 18:30

Larunbatetan:

10:30 - 14:00 eta 16:00 - 19:30

Igande eta jaiegunetan:

10:30 - 14:00

LURRUN TRENAREN IRTEERAK

Larunbatetan

12:30 eta 18:00

Igande eta jaiegunetan:

12:30



atzeko atetik



Aiora ZULAIKA

PIRRITX

Eskolaz dudana lehendabiziko oroitzapena hiru urte eskas nituenekoa da. Ikastolako gelan ginen, lehenengo solairuan eta andereño Arantzazu sorginez moztortuta etorri zen eskailera zaharretan gora. Hura zirraratu eta zalaparta! Irailean etxeko txiki-kin eskola-egokitzapenean jardun gara. Bizitzako lehen eskola egunetan haiek sentitzen ari diren beldurrek, jakin-minak eta sa-beleko tximeletek behin baino gehiagotan ekarri didate haurtzaroko irudi hura gogorra, usaina ere baduen oroipena.

Esfortzua, irudimena eta auzolana ziren garai hartako guraso eta irakasleen ikurra; ez zegoen haurrei euskarazko hezkuntza duin eta aurrerakoia, aurrera begirakoa, eskaintzeko beste modurik. Aitak ikastolako paretak pintatu zituen, amarekin eskulana egiten genituen ostiral arratsaldetan.

Eskolaz

Etxe xahar bat zen gure lehen ikastola. Hormari alde banatan torlojuz itsatsitako oholak mahai bihurtzen ziren; mahaia igota zeudenean borobilean esertzen ginen lurrean, edo jolasean aritzen ginen.

Gero barrakoi prefabrikatueta ibili ginen, eta hamar bat urterekin joan ginen 'handien ikastolara', mendi aldera zegoen eraikin berrira. Juan txoferrak eramaten gintuen autobusean, builoso bezain maitagarria gizona, gabon egunean gaztainak erretzen zituen denontzat. Egurrezko eserlekuak zituen autobus urdinak. Lineakoa izandakoa omen zen, auskalo nondik berreskuratua.

Edukiz, balorez, abenturaz, eta batez ere sentimenduz betetako ikastola bizi izan nuen, nola ez, irakasle petralen bat edo besterekin, gelakide jator eta ez hain jatorrekin. Sentimenduak azpimarratu ditut, izan ere, eskola, jakintza baino gehiago sentitzea dela edo izan behar duela uste dudalako. Sentitu gabe ikasten dena ahaztu egiten da ikasterako. Arribeko Juan Gorriti zurginak hala erakutsi zigun, gero pailazo taldean geure egindako lema: Sentitu, pentsatu, ekin: Bihotzak sentitu, 'buruarekin jan' eta eskuarekin egin, denok elkarrekin.

Sentitu, pentsatu, ekin!, bizimodua da, bizitza bizitzeko jarrera. Eskola, berriz, hori u-

lertzeko, bideratzeko eta egia bilakatzeko tresna.

Eta eskola, haurrak hazi eta hezteko bidean, sentimenduz gain, elkartasuna ere bada, hau da, onena eman eta onena jaso: Norberak duen onena ematea eta besteengandik haien onena jasotzea, itsasoa bezala, etengabeko mugimenduan, marea gora eta marea behera. Etenik gabe, gelditu gabe, eskola, ikasketa akademikoaz gain, bizipena baita, egunerokotasunean bizi ditugun gaiei eta arazoei heltzeko eta aurre egiteak ematen diguna.

Pailazo saioa amaitu eta oholtzatik behera jaisten garenean, haur, guraso, izabaosaba eta aitona-amonekin muxuak, besarkadak eta sekretuak partekatzen ditugunean, askotan galdetzen diote Pirritxi ea zer moduz dauden Pupu eta Lore, ea zelakoak diren. Pirritxek erantzuten die, berak, Pupu eta Lore aurrean dituen haurrak bezain politak, jatorrak, irudimentsuak eta maitagarriak izatea nahi duela. Egiaz betetako hitzak dira, izan ere, horilantzen badugu, mamiz betetako pertsonatxoak hazi eta heziko ditugu, eta argiak izango dira, azkarrak, eta gauza ederrak egingo dituzte elkarrekin.

"Gure gelakoak gelara! Egia-egia da!"

"Kolonizatuen mentalitatea du euskaldunak, kultura mailan eta nazio mailan, ez maila ekonomikoan"

Jose Manuel Odriozola

Eskola ekipamendua zure esku



Aske eta arduratsu hazteko



“Haurrak ingurunean hezten dira”
ideia oso zabaldua dago.
INGURUNEAN giza-ezagutzak hartzen ditu haurrak (gurasoak, irakasleak, hezitzaileak...) eta trebezia fisikoak ere bai. Horregatik, ekipamendu egokiak behar-beharrezkoak dira ziurtasuna eskaintzeko, motrizitatea garatzeko eta abarrerako.



Amazulo kooperatiba. Barrenkale, 18. 48200 DURANGO. Tel.: 946 570 087

amazulo.koop@gmail.com

www.amazulo.coop

ESPAZIOen antolaketa haurraren AUTONOMIA garatzeko



Azaroaren 9an (ostirala) DURANGON eta 10ean (larunbata) DONOSTIAN
Goizeko 9:00etatik 14:00etara

- **“Espazio desberdinak: kokagunea”.**

* **Jose Ramon Mauduit.** *Psikologoa eta prebentzioan aditua.*

- **“Espazioen garrantzia haurren garapenean. Espazioak eta jolas-guneak haur hezkuntzan.**
(gaztelaniaz)

* **Rosa Vidiella i Badell.** *Kataluniako hezitzaile espezializatua eta pedagogoa. Associació Pikler Hengstenberg*

“Baztan Haur Eskola: hezkuntza eta arkitektura proiektuak uztartuz”.

* **Kristina Goñi.** *Baztango haur eskolako zuzendaria.*

“Oiertzungo Haurreskolaren ibilbidea”.

* **Oiertzungo haur eskolako irakasleak.**

informazio osoa eta izena emateko aukera:
www.hikhasi.com Tel.: 943 371 408